



Eskerrik asko  
Anderoño

[www.antzizar.net](http://www.antzizar.net)

tel. 943 887900

KIROLA EGITEN ARI DIRA >>>>



BEASAINGO UDALA







**BIOK ZERBITZUAK, S/L**

Goierri kalea, 12

ORDIZIA

tel.: 943 88 44 00

faxa: 943 80 51 27

**GESTORIA**

**AHOLKULARITZA**

FISKALA - KONTABLEA - MERKANTILA

LABORALA

EKONOMIKOA - FINANTZIEROA

# Errenta aitorpenak egiten ditugu

Astelehenetik ostiralera

8:00 - 13:00

15:00 - 19:00

Epea:ekainak 25

[www.anzizar.com](http://www.anzizar.com)



EUROLAN 4x4-k zerbitzu berria ireki du Goierriako: ANZIZAR



THE LAND ROVER EXPERIENCE

**ANZIZAR** Beasain-Zumarraga errepidea Telefonoa: 943 88 17 00



## Goierritarra

### HAMABOSTEKARIA

#### Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea  
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

#### Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

#### Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Sorazuze, Agurtzane Bikuña, Aitor Tello, Aimar Maiz, Zelai Amenabarro, Mari Flor Mendizabal, Iñaki Gurrutxaga, Aitziber Murua eta Iñaki Ugalde.

#### Fotokonposizio eta maketazioa:

##### Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9, Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen  
derrigorrez, aldiakarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako  
Kultura Sailak,  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta  
**GOIERRIKO UDALEK**  
diruz lagundutako  
aldizkaria



"HASI, BELAR, MOTZ"



# Nazioarteko sega txapelketa helburu, Euskal Herriko segalarien arteko kanporaketa, Seguran

Ekainaren 15ean, goizeko 11etan, Segurako Madurako zelaian, Euskal Herriko segalarien arteko kanporaketa jokatu da. Segurako Udala eta Almitza Segurako Elkartea dira antolatzaileak. Bertan erabakiko da, zein gizon-emakume ordezkatuko duten Euskal Herria, irailaren 5, 6 eta 7an Seguran bertan jokatu den Nazioarteko sega txapelketan. 15 segalarik lortuko dute txartela, 5 emakumezko eta 10 gizonzko. Zehatzago esateko, 30 urtez azpiko emakumezko bat eta 3 gizonzko, eta 30 urtetik gorako 4 emakumezko eta 7 gizonzko.

#### Egin beharreko lana

Egun berean, eguerdiko 12etan, sailen zozketa egingo da, Segurako plazan. Norberari egokitutako saila, nork azkarren eta txukunen ebaki izango da lehia. Sai-

len neurriak hauek dira: emakumezkoetan, 7 x 5 m<sup>2</sup>, eta gizonzkoetan, 10 x 10 m<sup>2</sup>. Segalari bakoitzaren lana bi kronometratzailek neurtuko dute.

Kanporaketan ez da zorroztaile onartuko. Ahozko aholkularia izan dezake segalari bakoitzak baina belar sailetik kanpo egon beharko du segalaria belarra ebakitzen ari den momentuan.

Belar biltzaileak antolatzaileek jarriko dituzte eta segalari guztientzako berdinak izango dira. Epaimahaia 6 adituk osatuko dute, atzerritarrak barne.

#### Ekainaren 13an eta 14an festa

San Joan jaiak ofizialki ekainaren 20an hasiko badira, tabernariak eta txosnek antolatuta, musika izango da ekainaren 13an eta 14an, gauean. Gaubela taldea izango da giroa alaituko duena.

#### Goierritarra Goierriko kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:

urtean 12 euro

Ipar Euskal Herria eta Europa:

urtean 24 euro

Europaz kanpo:

urtean 36 euro



# Hauteskunde emaitzak Goierrin

## EAJ eta EA alderdiek osatutako koalizioa irabazle

Maiatzaren 25ean izan ziren udal eta foru hauteskundeak. Azpiko koadroan, Goierriko udal hauteskundeetako emaitzak dituzte.

Goierriren kasuan, EAJ-EA edo EA-EAJ koalizioak jaso dituzte botorik gehien: 10.304. PSE-EEk, 2.544 boto eskuratu ditu; PPK 1.676 eta IU-EBk 979. Batasunaren ilegalizazioaren hutsu-

nea betetzeko sortu diren herri kandidaturek, 5.556 boto eskuratu dituzte. Goierriin, EAJ-EA koalizioaren ondoren, aukerarik botatuena izan da.

Ekainaren 14an osatuko dira udal berriak, datozen lau urtean herriak bideratuko dituzten alkateak eta zinegotziak. Hurrengo alean izango dugu alkateen zerrenda osoa.

| HERRIA         | ERROLDA       | ABST.  | EAJ/EA        | 99an  | HERRI ZERREDA | EH-99an | PSE-EE       | 99an  | PP           | 99an  | EB-IU      | 99an | BESTEAK |
|----------------|---------------|--------|---------------|-------|---------------|---------|--------------|-------|--------------|-------|------------|------|---------|
| ALTZAGA        | 106           | %15,09 |               |       |               |         |              |       |              |       |            |      | 77(5)   |
| ARAMA          | 137           | %24,08 |               |       |               |         |              |       | 4            |       |            |      | 88(5)   |
| ATAUN          | 1.350         | %15,25 |               |       | 519           | 566     |              |       | 3            |       |            |      | 590(9)  |
| BEASAIN        | 10.133        | %30,09 | 3465(11)      | 2973  | 1.049         | 1643    | 1178(3)      | 1199  | 766(2)       | 682   | 469(1)     | 240  |         |
| EZKIO-ITSASO   | 457           | %19,91 |               |       | 153           | 206     |              |       | 1            |       |            |      | 199(7)  |
| GABIRIA        | 346           | %13,58 |               |       | 52(1)         |         |              |       | 2            |       |            |      | 237(6)  |
| GAINTZA        | 106           | %13,2  |               |       |               |         |              |       |              |       |            |      | 91(5)   |
| IDIAZABAL      | 1.748         | %20,3  | 984(11)       | 944   | 312           | 337     | 20           |       | 37           | 40    |            |      |         |
| ITSASONDO      | 468           | %29,48 | 150(7)        |       | 156           | 281     |              |       | 13           | 16    |            |      |         |
| LAZKAO         | 4.132         | %28,41 | 1.512(10)     | 1115  | 732           | 974     | 305(2)       | 333   | 208(1)       | 220   | 134        | 130  |         |
| LEGORRETA      | 1.159         | %25,1  | 519(8)        | 403   | 221           | 330     | 66(1)        | 49    | 40           | 38    |            |      |         |
| MUTILOA        | 136           | %21,32 |               |       |               |         |              |       |              |       |            |      | 104(5)) |
| OLABERRIA      | 785           | %24,96 | 317(5)        |       | 175(2)        | 192     | 48           | 77    | 36           | 63    |            |      |         |
| ORDIZIA        | 7.370         | %31,13 | 2.085(8)      | 1.850 | 1.019         | 1.617   | 908(3)       | 729   | 503(1)       | 577   | 376(1)     | 341  |         |
| ORMAIZTEGI     | 998           | %15,33 | 124(1)        | 520   | 185           | 260     | 7            |       | 9            | 6     |            |      | 503(8)  |
| SEGURA         | 1.010         | %14,95 | 487(9)        | 498   | 332           | 366     |              |       | 17           | 3     |            |      |         |
| ZALDIBIA       | 1.250         | %20,64 |               |       | 426           | 683     | 12           | 53    | 26           | 21    |            |      | 510(9)  |
| ZEGAMA         | 1.099         | %17,19 | 661(9)        | 528   | 223           | 367     |              |       | 14           | 9     |            |      |         |
| ZERAIN         | 214           | %8,41  |               |       |               |         |              |       |              |       |            |      | 192(7)  |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>33.004</b> |        | <b>10.304</b> | 8.831 | <b>5.556</b>  | 7.822   | <b>2.544</b> | 2.440 | <b>1.676</b> | 1.675 | <b>982</b> | 711  |         |



**ZUGAZTIBI**  
AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net  
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58  
Faxa: 943 16 15 58  
Domingo Unanue plaza, 2 behea ORDIZIA

9:30etik 19:00etara  
EGUERDIZ IREKITA

txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia



**lues rothers**  
BEASAIN



**PALACIO ORIENTAL**  
JATETXE TXINARRA  
東園酒家

× Kalitate eta zerbitzu hoberena  
× Etxerako zerbitzua Goierri osoan

943 725 243 Labeaga, 33 H URRETXU



**GENERALI**  
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20  
943 88 87 02  
BEASAIN



## Xabier Irastorza gose greban

Beasaingo euskal presoak gose greban dago, Ekainaren 30ean Frantzia duen zigorra bukatuko baitzaio. Espainiako estatuan ez dago bere aurkako sumariarik. Beasainen, Xabier Irastorzaren askatasuna eskatzeko hainbat firma biltze eta ekimen ari dira burutzen.

## Iruzurra Goierriin

300 bat gipuzkoar, gehienak goierritarrak, ustezko "Fyd Internacional" izeneko enpresaren sarean eroriak izan dira. Formakuntzako ikastaro bat, psikologiako formakuntza eskaintzen zuen, 3.600 euroren truke. Enpresa piramidala izaki, bakoitzak hiru pertsona "harrapatu" behar zituen, enpresaren barruan kategoriaz igotzen joateko. Ondorengo pertsona hauek ere beste hainbeste egin beharko luke. Ertzaintza kasua ikertzen ari da. GOIERRITARRA aldizkariari kaltetutako emakume batek adierazi dionez, "guzti honekin amaitzeko modu bakarra, kate hori puskatzea da. Beraiak erabiltzen duten indar berbera erabiltzea da, alegia, zure lagun, familiari, zutaz fidatzen diren guztiei, dagoenaren berri ematea, enpresa aktibitate ilegal honen berri (katea moztzen den egunean iruzurra izango dena) ematea da".

## Afagi laguntzaile bila

Gipuzkoako Alzheimerdun Gaixoen Senitartekoan Elkartek 'Lagundu gogoratzeko ahalmenik ez duenari' kanpaina egiten ari da. "Solidarioa sentitzen bazara eta zure laguntza emateko prest bazau, egin zaitez Afagiko boluntarioa, behar zaitugu", dio Afagik. Harremanetarako telefono zenbakia: 943297118.



## Telebistak Goierriin

Goierriko gune natural esanguratsuenen irudiak jasotzen, eta eskualdeko errekurtsu turistiko ezberdinak biltzen aritu ziren ziren maiatzaren 29an eta 30ean Euskal Herriko eta Espainiar Estatuko hainbat telebista. Besteak beste, Antena 3, Arrasate Telebista, Zarauzko Telebista eta Canal 4 Navarra. Argazkirako guztiak bildu genituen, Otzaurten.

## Martin Alustizak pilota utzi du

Segurarrak pilota uztea erabaki du Asegarge enpresak kontratua luzatzeko asmorik ez baitauka. Ekainaren 30ean bukatzen zaio kontratua. Urtebete gehiago jarraitzeko gogoia zuen Alustizak baina enpresak ez du bere nahia onartu. Martin Alustizak 41 urte ditu. Uztailean 23 urte beteko zituen pilotari profesional bezala.

## Xabier Imaz bigarren mailara

Ekainaren 2an izan zuen Xabier Imazek lehenengo mailari eusteko azkeneko aukera. Baina Berraondoren aurka galdu, eta bigarren mailan aritu beharko du hemendik aurrerako Segurako pilotariak.

## Mikel Gaztañaga

Itsasondoko txirrindulariak Nafarroako Itzuliko etapa bat irabazi du.

**CABINETE PSIKOLOGIKOA**  
  
**ARPE**  
 x Depresioak x Beldurrak  
 x Harremanetarako arazoak x Antsiak  
 x Segurtasun eza  
 Ordua eska ezazu konpromezurik gabe  
 ☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk. BEASAIN

**Pedro Jose Landagutierrez**

PSIKOLOGOA  
 Kol. Zkia. E - 1687



**Mendizabal, C.B.**

**ITURGINTZA - BEROGINTZA**

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)  
 Txindoki, 23 - 4. ezk.

**ZALDIBIA**

**Potoka**  
 KAFETEGIA  
 Legazpi kalea, 3  
 ORDIZIA  
 ● Pintxo hotz eta beroak  
 ● Ogitaratekoak

**SEGURA IRRATIA**  
**F.M. 89.2**  
 EGUNEKO  
 24 ORDUAK  
 ZUREKIN



## Aralarko abeltzainen ordezkariak esandakoari erantzuna

Zuzendaritza Batzordeak 2003ko maiatzaren 7an egin-dako bileran honako idatzi hau onartu du:

Maiatzaren lehen Aralarko larreak irekitzen direla eta, Enirio-Aralarko Mankomunitateak, Foru Aldundiarekin batera, Larraitzen antolatzen duen festa aprobetxatuz, abeltzainen ordezkariak menditik bota egin nahi ditugula eta bai basoari bai mendizaleei lehentasuna ematen diegula aurpegiratu digute.

Legealdia bukatzen ari den honetan burutu ahal izan dugun erronkarik handiena abeltzaintza eta, batez ere, artzaintzaren etorkizuna finkatzeko egitamua eta ordenantza onartzea izan dugun honetan. Baina ez hori bakarrik, azken 15 urtetan inbertisiotarako eduki dugun dirua oso osorik abeltzainen eta beraien ganaduaren egoera hobetzeko lanetan gastatu dugu; orain 15 urte hasi zen programari esker, txabolak berriro dira, urez eta argiz hornitu, askak eta jeztokiak eraiki, bideak konpondu; ideia bat egitearren, Foru Aldundiaren laguntzari esker, aurren 423.000 euroko aurrekontua onartu dugu lan hauek bukatzen joateko.

Abeltzainen haserreak beste arrazoi batzuk eduki behar dituzte beraz eta, gure ustez, oinarrian Mankomunitatearen agintaritzak onartu nahi ez izatea dago. Baina mendi honen administratzaile garenok, mendia zaindu behar dugu, erabilera guztiak antolatu eta orekatzen saiatu. Abeltzainek ere beste erabiltzaileekin elkarbizitzen saiatu behar dute, bakoitzak dituen behar eta ikuspegi desberdinak onartuz, Aralarren jabe ez baitira bertako larreak aprobetxatzen dituzten 200

abeltzainak bakarrik, baizik eta Mankomunitatea osatzen duten 15 herrietako biztanle guztiak.

Araudi oso kontserbazionistak ezartzen ditugula leporatzen digutenean, ezin gaizki hartu, mendi honetan larreak 2.200 hektarea eta basoak 600 besterik ez direla jakitean, behar den lekuetan basoa berreskuratzea onartuko ez duenik ba al da gure artean? Eta azken urte hauetan Aralarren igotzen den ganadu kopuruak gorakada nabarmen bat egin duela jakinda, hauen kopurua mendiak dituen mugetara moldatzearena aurkakorik ba al da?

Onartzen dugu, goiko larreak mantentzeko, ganadua behar beharrezkoa dela mendian eta abeltzaintza Aralarren dugu jarduera ekonomiko garrantzitsua dela gaur egun. Horregatik, aurrerantzean ere abeltzaintza bultzatu eta gizarteari mendirako duen garrantzia erakusten saiatuko gara, baina beti ere Aralarrerako hoberena deritzoguna bilatzeko bidetik atara gabe.

Ahalegin horretan abeltzainek ere lagun izango gaituzte, baina ez inongo arauetara lotu nahi ez, eta mendian bakarrik izango balira bezala jokatu nahi dutenek.

*Alejandra Iturrioz  
(Enirio-Aralar Mankomunitateko  
Lehendakaria)*

## Illegalizazio ilegalei ez! Bai Aramako herriari! Bai Euskal Herriari!

Garai latzak bizi ditugula Euskal Herrian esatea ez da nobedadea. Ez da inorentzat berria.

Baina, oraingo honetan, geuri ere bete-betean tokatu zaigu garai hauen ondorio mingarriak jasatea.

Batzuk, ustekabeen harapatuko gintuen herriko egoe-rak. Beste batzuk berriz, izango genuen hau emango zena-ren uste edo beldurra. Baina, bai batzuk zein bestee, ziu-rrenik sentsazio berbera izan-go dugu: lotsa.

Eta lotsa eman diguna ez da gure burua izan. Lotsa eman digu, botereak zenbaterainoko gorrotoa eragiten duen ikusteak, otsoaren hartzaparrak noraino luzatzen diren nabaritzeak.

Eta inork, orain arte, begiak itsuturik izan baditu, oraintxe izan du aukera gauzak diren bezala ikusteko, inolako mirariren esperoan egon beharrik gabe. Ikusi nahi bazuen behinik behin, ikusi nahi ez duena baino itsuagorik ez baitago.

Aramako kasua izan da, hain zuzen ere, itsutasun horretarako erremediorik garbiena, argi ikusi ahal izan baita, estatua aitzakiaz aitzaki ari dela ideiak ilegalizatzearen bidean. Ideia, bai, beraiek erabiltzen dituzten hitz potoloak aitzakiak besterik ez baitira pentsakera jakin bat ezabatzeko, horrela beraien sakelerako irabaziak lortuaz.

Nork azaldu bestela guri, Egin, Kas-ekin, Jarrai-Haika-Segi, Askatasuna, HB-EH-Batasuna, Egunkaria, Udabiltza eta amaitzerik izango ez genukeen erakunde zerrenda luze bati egindakoa. Azken kolpea AUB eta Herri Plataformek jasan dute. Eta nor izango da hurrena? Asko eta

asko gara boleto horren jabe.

Eta, guzti hau zergatik? Bada, euskara maite duelako, euskal kultura maite dutelako, Euskal Herria maite dutelako. Hori da beraien delitua, Euskal Herria maite dutela. Horregatik dira terroristak, horregatik gara terroristak.

Eta horregatik ilegalizatu nahi izan gaituzte aramatarrok ere, herri hau maite dugulako, hain zuzen ere. Baina oraingoan ez dute lortu, ez dute lortu frogatzerik terroristak garela, ez dute lortu frogatzea euskaldunak garela, "falta de pruebas", alegia. Geure txikitasuna mesedetarako ziurrenik.

Esan diezaiegun bada estatuari, gu ere ezabatzeko aukerarik izan ez duela aprobetxatuaz, eta beharrezko frogak horiek emateko beldurrik izan gabe, guk ere maite dugula euskara, maite dugula euskal kultura, maite dugula Euskal Herria. Eta gainera, inork kanpotik gobernatzera etortzearen beharrik ez daukagula, aski baikara gu geu, geure etxea, geure aitaren etxea zutik eta tinko mantentzeko.

Ezin dugu ahan-tzi, gainera, geure herri txiki hau, herri handi bateko zati dela, eta herri handi hori bizirik mantendu ezean, geure herri txiki hau ere ezingo dela bizirik mantendu. Eta bizilagun asko eta asko geratu garela geure pentsakera plazaratu eta defendatuko digun inor gabe. Bila dezagun bada denon artean bidea, egoera latz honetatik aterako gaituen bidea, nahiz eta denbora ugari kostatuko zaigun, bakoitzak ahal duen neurrian ahalegin sendo bat eginez lortuko dugu eta.

*Axier Mujika (Aramako Herri Batzarraren izenean)*



# Landarlan elkartea? Oraingoan bai!

Azkenik, eskualde mailan faltan botatzen genuena lortze bidean dagoela jakinarazten dizuegu. Zer ote? Ba hain zuzen ere, gure inguruneaz arduratuko den talde interdisziplinari bat, Goierritarren kultura, ohitura, izaera... esentziaz arduratuko den taldea, Goierriko eta inguruko bizi kalitateaz, naturaz eta landa eremuen ezaugarriez jardungo dena, borondatez beren gogoia eta denbora zuei, guztioi eskainiaz.



Jada, 17 lagun elkartu gara eta gehiagorik izatea espero dugu. Dena den, gaudenok elkarrekin batean egituratzea erabaki dugu, lantxo batzuk eskuartearen ditugula aprobetxatuz, eskaintza on eta serioa eskaini nahi baitugu. Bide batez, administrazioak gaitararako eskaintzen dituen dirulaguntzetara jo ahal izango genuke eta horrela, lanerako baliagarri izango zaizkigun gutxieneko azpiegiturekin hornituko genuke elkartea.

Egun taldekideok, daukagun lana edo ikasketei begiratuta nekazaritza, mendi edo basogintza, eta ingurugiro gaiekin lotutakoak dira, beste "perfil" edo esparruak eza gutzen edo gogoko dituenik falta delarik. Hori da gure beldurretari bat, alegia, zuzenbidean, informatikan, irakaskuntzan, argazkigintzan, edo beste edozein formazio edo zaletasun dutenen hutsunea izatea, kutsu bakarrek taldean bilakatzea, askotan ikuspegi txiki mugatuaz talde ekologista moduan ikusten dena. Eta EZ, hori ez da Landarlan, eta BAI, zuen eskaintzaren zain dago. Goierritartasuna, bizi kalitate jatorraz eta aberastuaz landu nahi duen taldea, gu-



re historian zehar jasotakoak, belaunaldi berrien atarira eramango duena. Aspalditik falta zaigun egitura gauzatzea planteatzen da, guraso, haur eta gazte, beren apurrarekin elkar bizitza egin eta banatzea, benetan gurea dugun denbora eta gogoia eskainiaz, elkartzen gaituen eskualdea ezagutu eta gozatuz.

Estatutuaren elkarteko helburu direnak aurreratzearen jakin, ondoko helburuak lortzen saiatuko dela:

- Goierritarren ingurumen gaiekiko kontzientziazio maila suspertu eta biztanleria ingurumen gaitan hornituz oinarrituko irizpideak eskaintzea.
- Egoki ikusten den heinean ingurumen gaitan aldarrikapen ahotsa izan.
- Taldekideen formakuntza garatzen saiatu.
- Goierriko martxan jarriko diren jasangarritasunaren aldeko ekimenetan parte hartzea.

Idatzi honen bitartez, datorren ekainaren 14an goizeko 11etan Goimen Elkarteko bilera gelan izango den topaketara deitzen zaituztegu. Bertan, interesatuak zaudetenei aurkezpen gisa, elkarrearen egitasmo eta urteko programa azalduko zaizue, jarraian estatutuen onartzea eta elkarrearen egituratuko garelarik. Beraz, animatzen bazarete, Ordiziako Santa Maria kalea, 4, 1.º solairuan izango gaituzue, "korreos" ondoan.

Ondo izan eta ordura arte!

## JAKIN BEHARREKOA

✓ **Ezkia, gaztelaraz "tilo"**, Tilia generokoa da, eta ezagunago beren infusio-egatik egiten zaigu landarea bera baino. Infusio hauek momentu honetan txehaitza goitik behera no jantzi duten loreekin egiten dira eta lasaigarri gisa ez ezik, buruko minari aurre egiteko edo eta loartarazteko edo eta bihotzerraren kontrarako ere erabiltzen da. Lore hauetatik beste hainbat onura ere lor daiteke, aromaterapia gisara, duen fragantziagatik, edo erleak zoro-zoro beren zukuaz lortutako eztiarengatik, oso-oso fina eta preziatua. Zeharka, esan ezkiaren bueltan izaki anitz biltzen dela, intsektuak batik bat eta honen egurra ere oso preziatua dela egur tailarako. Gure parkeetan sarri ikusi ohi dugun landarea da, gehienetan apaingarritarako, ornametuzkoak Tilia tomentosa izenekoak dira, bestela T. Cordata eta T. platyphyllos izenekoak ditugu arruntenak eta bertakoak, lehenak horri txikia izateagatik ezaugarritzen da eta bere lore eta fruituak zuzen ateratzen dira, bestea aldiz, hosto handiagoak ditu eta lore zein fruituak zintzilikaturik azaltzen ditu.

✓ **Arrano sugejalearen lehen urratsak ikusteko aukeratu gaude**, hauek txitak bakar bat hazten dute eta jada garaturik, gure zeruetan ikus ditzakegu beren lehen saiakeretan. Horrela iragango dute udaren gehiena eta udazkenaren hasiera, gurasoekin bat hegoalderako deia iritsi artean.

**Landar Lan taldeak egindako orrialdea**

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44



## Kate motzean

**Eguzkitarako betaurrekoak: moda ala beharra?**  
Beharra.

**Estetika ala kalitatea da garrantzitsuen?**  
Kalitatea.

**Eguzkitarako betaurrekoentzat kristal kolorerik egokiena:**  
Filtro ona duen edozein koloretako lenteak.

**Eta modan dagoen kolorea?**  
Kolore argiak.

**Nolako betaurrekoak daude modan?**  
Pantailak eta monturarik gabeko betaurrekoak batik bat.

**Haur txikientzat egokiak al dira eguzkitarako betaurrekoak?**  
Toki jakinetan: hondartzan, elurretan...

**Zuek eguzkitarako betaurrekorik ba al daukazue?**  
Bai, noski. Hemen lau gaude eta bakoitzak bere gus-tuen arabera ditugu.

**Autoan beharrezkoak al dira eguzkitarako betaurrekoak?**  
Bai, eguzkiak jotzen duenean behintzat.

**Noiz jarri eta noiz kendu eguzkitarako betaurrekoak?**  
Bakoitzak behar ezberdinak ditu eta horiek norberak neurtzea da onena.

Eguzkirik ez dagoenean eguzkitarako betaurrekoak jantzita dituen ikusita, zer pentsatzen duzue?

Gehienetan pentsatzen duzuna da, begietan zerbaiten arazoren bat izan deza-keela.

**Eguzkitarako betaurreko txar bat, mesedera-ko baino gehiago kalte- rako izan al liteke?**

Zalantzarik gabe, txarra baldin bada kalte gehiago egin dezake.

**Eguzkitarako betaurrekoak erosteko gomendio bat:**

Kalitatea ziurtatu daitekeen lekuetara zuzen- tzea.

**Eguzkitarako betaurrekoak saltzeko garairik onena?**  
Udaberri-uda bitarteko sasoi.

**Eguzkitarako betaurrekoak aurpegi txarrantzat erreme- dioa al da?**

Bai, baina gorputz txarrantzat ez.



**Mari Karmen,  
Nagore, Ana Belen  
eta Ainhoa**

**(Optika Larrañaga)**

### OSKARBI ARROPA GARBITEGIA

Arropa industrial mota guztiak  
Ostalaritza  
Bezeroaren instalazioetan bilketa eta entrega  
Partikularrentzat mantak, edredoiak, buzoak...

Leku-Eder etxea- Senpere auzoa-Lazkao  
Tel.: 943 88 40 90 - 669 872 261

**izal**  
IMAZ eta CONTRERAS  
**PINTURA eta PAPERGINTZA**  
943 187 049 - 943 187 045  
Ondramuño baserria IDIAZABAL

**Joxi**  
Iturgintza - Berogintza - Gasa  
Carrefour merkatalgunea  
Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488  
OLABERRIA

### ZUHAIZKI S. A. L. ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATE-  
AK eta abar  
× ESKAILERAK  
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1  
Txarama Auzoa  
20491 LEABURU  
Tfnoa.: 943 67 36 11  
Faxa: 943 67 36 55



### MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19  
943 88 11 94  
ORDIZIA

### URBITARTE tolare sagardotegia



**Txotx denboraldia zabalik**

Tel.: 943 18 01 19  
Ergoiena Auzoa ATAUN





Ondo pasa festetan!

## ITZALA

taberna

☎ 943 88 30 24  
Zaldizurreta, 3 BEASAIN

LURRAZPIKO  
JAIA !!



ARANA, 1  
☎ 943 88 93 88 BEASAIN

## BARANDIARAN Taberna

- Eguneroko bazkariak J.M. Iturrioz, 7
- Afariak ☎ 943 88 92 10
- Baserriko oilaskoak BEASAIN



Zaldizurreta K. BEASAIN



ZALDIZURRETA, 1

BEASAIN

☎ 943 16 19 35

## ARRANO TABERNA



Pintxo eta ogitartekoak

Jaietan ere preso eta iheslariak gogoan

Nagusia, 12 BEASAIN

Basakana



Iturrioz, 11 beasain

## LOINATZ

Taberna  
Jatetxea

Bazkari, afari,  
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07 Nagusia, 27 BEASAIN



Zaldizurreta kalea BEASAIN



Zaldizurreta kalea ☎ 943 88 45 06 BEASAIN

## NAGASAKI

Taberna

Sartu zure giroan!

☎ 943 88 15 67 J. M. Iturrioz BEASAIN



Zaldizurreta, 13

☎ 943 881 930

pub

MURGIL

BEASAIN

Edaritegia *Jar* Kafetegia

Festa onak pasa!

Nafarroa Etorbidea, 27 ☎ 943 88 86 81  
BEASAIN





ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA  
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK  
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK  
BERRIKUNTZA LANAK  
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA  
BAINUKO ALTZARIAK



**BULEGOAK-LANTEGIA**  
USABAL, 11-A  
TOLOSA  
Tel.: 943 672 620

**POLIURETANOZKO LEIHOAK**



**ERAKUSKETAK:**  
SAN FRANTZISKO, 10  
TOLOSA  
Tel.: 943 653 307



**GARMENDIA**  
Egur tratamenduak



Mallutz industrialdea, 25-26 ORDIZIA Tel. : 943 161 032 / Faxe: 943 160 842  
E-mail: garmendia@garmendiatejas.com • www.garmendiatejas.com

## Aurreikusi



**Hezetasuna**  
**Eguzkiaren eragina**

**Pipia** Barruko egurretan:  
Habeak  
Parketa...



Kanpoko egurretan:  
Leihoak  
Ateak  
Jardineko altzariak...

## Sendatu

**Pipiak jota dauden altzariak**





# 0-3 urteko haurrei zuzendutako igeriketa ikastaroa Ordiziako Majori kiroldegian

**J**uan Inazio Moyua da lau hilabetetik aurrerako haurrei igeriketa erakusten dien irakaslea. 7 hilabeterekin hasten zaie igerian erakusten, eta aurretik, urarekin gozatzen, familia giro goxoan gozatzen. Goierrin esperientzia bakarra da Ordiziako Majori kiroldegiak eskaintzen duena.

Lau hilabetetik aurrerako haurrentzako eta hauen gurasoentzako eskaintza da Majori kiroldegiak eskaintzen duena. "Egokiagoa litzateke lehenengo hastea, baina gorputzeko defentsak eskasak dituzte eta hobe izaten lau hilabetera arte itxoitea", argitu du Juan Inazio Moyua irakasleak. Zenbat eta lehenago hasi, orduan eta hobeto, "haur jaio berri bat uretara botaz gero, ez litzateke arazorik egongo, bere hasierako 9 hilabeteetan uretan egon baita. Gerora hasten da gaitasuna galtzen", zehaztu du.

Ikastaroa hasi aurretik, lehenengo gurasoekin hitz egiten da. Etxean nola ibili diren baineran adibidez, gurasoek dituzten beldurrak... "Guraso batzuk urari beldurra diote eta beraien haurrei beldur hori kendu nahi diote. Baina askotan arazoa sortzen da, gurasoen beldurra haurrari oso erraz transmititzen baitzaio. Zaila izaten da beldur horrekin aurrera egitea. Askotan lehenengo gurasoarekin egin behar da lana eta gero haurra sartu.", argitu du Moyuak.



## Astean bi egun

Astean orduerdiko bi saio egiten dituzte Majori kiroldegian, beti ere haurraren beharretara mugatuta. Astelehenetan eta asteazkenetan, goizez, 12etatik 12,30etara eta asteartetan eta ostegunetan, arratsalde, 4etatik 4,30etara.

Goierrin era honetako esperientzia bakarra da. Azpiegitura da arazo handiena Juan Inazio Moyuaren esanetan. "Igerilekua da garrantzitsua. Ur beroa behar da eta gurasoak zutik egoteko sakontasuna. Guk igerileku txikia daukagu ur beroarekin, baina gurasoek ezin dute zutik egon. Geroago pasatzen ditugu igerileku handira. Ur hotzagoa dago bertan. Baina dagoenarekin modaltu behar".

Bi fase izaten ditu ikastaroak. Batetik, lau eta 7 hilabete bitartekoa. "Oso polita izaten da, haurra uretan gozatzen ikustea. Uretan gozatu egiten du haurrak eta gurasoak. Hortik aurrera beste arazo batzuk sortzen dira, gurasoen beldurra tartean. Beldurra duten gurasoa izanez gero, gehiago kostatzen da lortzea". Lehenengo fase honetan, zera lortzen da: haurra uretara eroriz gero, posible izango luke ur gainera ater

eta laguntza iritsi arte ur gainean egotea.

7 hilabeterekin hasten dira haurrari igeri erakusteko lehen urratsak ematen. "7 hilabeteen haurrak heldu egiten dira. Haurrak zutik egon nahi du eta beste teknika batzuk lantzen hasten gara. Igeri erakusten saiatzen gara. Beroetako flotadoreekin zutik erakutsiko diogu lehenengo, hanketan oraindik indar gehiegirik ez du izaten eta. Oinez hasten diren momen

tuak, igeri egiten hasten dira", zehaztu du.

Amarekin edo aitarekin etortzea da baldintzetako bat. Biak etorritik gero, hobeto. Zenbait ariketetarako ama hobe izaten omen da, goxoa, baina beste zenbait ariketetan aita egokiagoa izaten da. "Ariketa batzuk gogorrak egiten dira. Bigarren egunean hasten gara haurra ur azpian sartzen eta normalena ura edatea da. Zaila izaten da baina ez da arazorik egoten. Lehenengo ahoa sartzen diogu, gero sudurra eta gero buru osoa. Pixkanaka joaten gara. Ariketa honetarako, aita egokiagoa izaten da, normalean. Dena den, onena, familia osoa etortzea da. Asteburuetan familia osoa etor dadila animatzen dugu", azpimarratu du Moyuak.

## Onurak

Dena den, igeri erakustea baino helburu sakonago bat ere badago: "igeri erakustea bigarren mailako helburua da. Guraso eta seme-alabaren arteko harremana asko sendotzen da. Oso harreman polita da. Gure bizimoduan, lanagatik, seme-alabekiko harremana oso txikia izaten da. Elkarrekin gozatzeko tartea izaten da igerilekua".

Lo egiteko edo jateko arazoak dituzten haurrentzat terapia ona izaten dela dio Moyuak. "Uretan erlaxatu egiten dira. Ia denak, ikastarotik aterata eta lo gelditzen dira".

Guraso den edonori, Majori kiroldegira hurbildu eta probatzeko gonbidapena egiten dio Juan Inazio Moyuak. "Astebeteen probatu eta gustatuz gero aurrera egin dezatela".

## Juan Inazio Moyua:

**"Igeri erakustea bigarren mailako helburua da. Gurasoak eta seme-alabak, elkarrekin gozatzeko tartea izaten da"**



# Goierriko ikastoletako lehen andereñoak

**E**usko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak maiatzaren 9an aurkeztu zuen 1964tik 1968ra ikastoletako maisu eta andereño izandakoek egindako lanagatik jaso beharreko konpentsazioak arautzen dituen dekretua. Hauen artean Goierriko 23 andereño daude. Beraien ahotik jaso dugu Goierri nolakoa izan zen ikastolak sortu zituzten garaia.

Urte haietan andereñoek egoera zailean lan egin zuten ez zuten gizarte aseguntzarik kotizatu eta nolabaiteko konpentsazioa da. Horrek ez du esan nahi 68-a ondoren kotizatu zutenik 1978-79 urteetan hasi ziren kotizatzen.

Goierriko lehen ikastola Lazkaokoa sortu zen 1963 urtean. Gero etorri ziren Beasaingo eta gainontzekoak, eta hauentzat oso baliagarria izan zen Lazkaoko esperientzia. Andereño gehienak guraso talde batek eskatuta hasi ziren, inongo ikasketarik gabe, lanean. Hasi aurretik ikastolaren batean, gehienak Lazkaon bertan, praktikak egin zituzten. Ondoren atera zituzten titulu guztiak: euskara, sokorrismoa, puerikultura, unibertsitaterako akzesoa, magisteritza... Asteburuetan ikastaroak egitera joaten ziren, baita udaro ere. Katalanengandik asko ikasi zuten hasiera haietan.

Denak ere bat etorri dira ikastolak martxan jartzeko bi pertsonak egin zuten lana aipatzen: Euskal Herri mailan Elbira Zipitriak eta Goierri mailan Jaxinto Setienek.

Dena den jende asko aritu zen lanean, "guk meritua izan genuen egoera hartan

## Bitxikeriak

Hasierako garai zail haietan milaka bitxikeria, pasadizo, apuru eta zorion gogoratzen dituzte andereñoek. Baina denentzat lekurik ez dago lerro hauetan. Hona hemen batzuk.

Beasainen mutilentzat La Sallen kartila lortu zuten eta orduan inspektorea etortzen zenean ikastolan mutilik ez zen egon behar. Inspektorea etortzen zenean Olano etxean arropak gordetzeko gelan sartzen zituzten denak eta hantxe egoten ziren, isil-isilik.

Titulurik ez zuten irakasleek beraien umeekin mendira joan beharra izaten zuten inspektorea etortzen zen garaian. Umeak egindako ikurrina-eta gorde, eta Francoren argazkia jartzen zuten. "Eskola publikoko irakasle batzuk abisatzen ziguten inspektorea noiz zetorren eta eskertzekoa zen".

Eugenia Sarasola Leitzara joan zen ikastola sortzera. "Hau oso maiz izaten genuen mendira joan beharra. Salaketa bat egon zen eta Iruñeatik Gobernadorea etorri zen ikastola ixtera", dio.

Ordizian gaineko lokalean Jaxinto Mujika apaizak kristau ikasbidea ematen zuen. Behin guardia zibila zetorrela abisatu zioten. "Guk genituen Martin Txilibitu eta Xabiertxo guztiak gora igo eta kristau ikasbideko liburuak jaitsi genituen. Guardia zibilak zertan ari ginen galdetutakoan kristau ikasbidea ematen ari ginela esan genien".

Gehienek lan eginez atera zuten magisteritza titulua. Mari Karmen Urdangarin, adibidez, bere alabarekin batera hasi zen magisteritza ikasten. "Baina berak egun guztia zuen horretarako eta nik lan eginez ikasi beharra izan nuen". Titulua ez zieten oparitu, "negar asko egin genuen", diote.

## Lehenengo udalekuak

Lazkaokoen lehenengo udalekua Nafarroako Basaburuan egin zuten 1968an, argirik ez zegoen etxean, ondoko etxetik argi indarra hartu eta lasto gainean mantak jarrita egiten zuten lo.

Beasaingo lehenengo udalekua Don Jesus Dorronsorok antolatuta Egozkuen izan ziren. "Umeekin, senarra eta nire bi umeak joan ginen. Nik sukaldeko lanak egiten nituen, nire senarrak sukaldean lagundu, ekonomikarako egurra txikitu eta gauez umeak zaintzen zituen", dio Isabelek.

ezer jakin gabe lanean haste-  
an baina baita gurasoek ere,  
umeak inongo ziurtasunik ga-  
be gure esku uzteko garaian.  
Lana ere ugari egin zuten",  
diote andereñoek. "Gainera  
ez genuen ezer erakusten  
abestiak eta ipuinak baka-  
rrik. Beasainen mendira ate-  
ratzen ginenean umeak kale-  
an kantari joaten ziren eta  
jendea balkoieta ateratzen  
zen ikustera", gehitu du Isa-  
bel Olanok.

Herrietan bazkide eta la-  
guntzaileak zituzten eta ande-  
reñoak beraiek ibiltzen ziren  
etxez etxe kobratzen. Goierri  
mailako kaxa bat egin zen he-  
rri txikietakoek kobratu ahal  
izateko. Beasainen ikastaroak  
ere ematen ziren eta horretan  
gurasoek eta herriko jendeak  
asko lagundu zuten psikolo-  
gia, euskara edo bakoitzak  
berak zekien gaia irakatsiaz.

Eskola materiala ere gaur-  
koarekin aldentuta oso ez-

berdina erabiltzen zen, or-  
duan txotxak eta plastilina  
erabiltzen ziren gehien, ande-  
reñoek beraien poltsikotik  
erositakoak, gehienez. Blo-  
kak ere beraiek egiten zituz-  
ten. Klaseak bukatutakoan  
hurrengo egunerako materia-  
la prestatu beharra zegoen eta  
ordu mordoa sartzen zuten.  
"Baina dena alaitasun osoz  
egiten genuen", dio Arantxa  
Arratibelek. Kobratu ahal  
izateko, tonbola, errifa jai-  
aldi... denetik egin beharra iz-  
aten zuten.

Ikasturtea orduan ez zen  
orain bezala. Gurasoek hau-  
rrak eskola publikotik atera  
eta urteko edozein sasotian  
hasten ziren ikastolan. Ume-  
en beharrean zeudenez denak  
onartzen zituzten.

## Hezkuntza sistema ezberdina

6 urtera arte ez ziren idazten  
eta irakurtzen hasten. Irakas-  
kuntza jolasean oinarritzen  
zen, mendira asko joaten zi-  
ren, han bildutakoarekin era-  
kusten zuten batuketa eta  
kenketak egiten, abestien bi-  
dez asko irakasten zen, mate-  
matika eguneroko bizitzare-  
kin lotzen zen... Iraultza bat  
zen orduko irakaskuntzan.

## Lazkao

Lazkaon Mari Karmen Ur-  
dangarin hasi zen 1963. urte-  
an, "Ni lanean nenbilen, bai-  
na Jaxinto Setien etorri zi-  
tzaidan ikastolan hasteko es-  
katuz. Horrela lana utzita ha-  
si nintzen, Pax etxean ume  
koxxortuxeagoekin hasi nin-  
tzen. Gero Borda Xurira joan  
nintzen 1964-65 ikasturtean  
ume txikiekin". Geroago  
hainbat leku ezberdinetan  
egon zen ikastola: Antzuola-  
tegi, Elizkriston, Joxe Mari  
Soroaren garajea, Gurutze-  
ko baxeratan...





Argazkirako 23etatik 13 elkartu baziren ere, hauek dira denen izenak: **Lazkao:** Mari Karmen Urdangarin, Kari Eztala, Arantxa Arratibel, Lurdes Estensoro, Mertxe Ruiz de Egin, Mari Karmen Izagirre, Arantxa Aldasoro eta Marisabel Aldasoro. **Beasain:** Isabel Olano, Maria Jesus Arratibel eta Iñake Irastorza. **Ordizia:** Rosarito Lasa, Eugeni Sarasola eta Mari Karmen Oiarbide. **Legorreta:** Mirari Arregi eta Arantxa Allur. **Segura:** Maixabel Telleria eta Garbiñe Etxeberria. **Zaldibia:** Arantxa Etxeberria eta Nekane Arruabarrena. **Idiazabal:** Ana Mari Aseginolaza. **Itsasondo:** Maite Olazabal. **Ataun:** Begoña Munduate.

Ondoren 1964. urtean hasi ziren Kari Eztala, Arantxa Arratibel eta ondoren etorri ziren gainontzeko guztiak. "Hasierako gurasoak oso kontzientziatuak ziren eta erraza izan zen, gero indarra hartzen joan ginen eran guraso euskaldunen etxeetara etxez etxe joaten ginen ikasleak lortzeko", azaldu digute.

Lehenengo ikastola parrokiaren izenean zegoen, baina, Gurdia Zibila etorri eta ikastola itxi zuten. Gero fraideen izenean ireki genuen eta horregatik jarri zitzaion San Benito izena. Jaxinto, Joxe Mari Aranburu eta beste hainbatek lan handia egin zuten ikastola aurrera ateratzeko.

Lazkaoko andereñoak hainbat herrietara joaten ziren ikastolak zer ziren teoria esplikatzera eta praktikan erakusteko Lazkaoko umeak gurasoekin autoetan hartu eta herri horietara joaten ziren.

### Beasain

Isabel Olano 1965eko urtarri-lean San Inazio kaleko soto handi batean hasi zen. Majis-

teritza eginda zegoen eta ezkondu aurretik irakasle ibilia zen. "Oraindik ere amets egiten dut zulo harekin. Komunik ere ez zegoen bi edo hiru etxeren azpikalde guztia zen, zementu hutsa. Euria egiten zuenean ia dena bustitzen zen. Bazter bat zen txukunxegoa, Donostiatik alfonbra ekarri eta haren gainean esertzen genituen umeak. Komuna izandako gela bat zegoen eta hantxe orinala eta baldea genituen. Lokala parrokiarena zen eta goian zegoen lokalean komuna zegoenez, umeak joandakoan han husten nituen ontziak eta asteburuetan etxera eramaten nituen lexiarekin desinfektatzen. 27 umerekin hasi nintzen, bigarren ikastaroan 47 nituen baina ikasturte erdi aldera Jaxintok Maria Jesus Arratibel ekarri zuen". 65-66 ikasturtea oraingoz zulo hartan egin zuten eta 66-67a han hasi bazuten ere, ondoren Olano-etxearen azpiko lokalera joan ziren. Orduan hasi zen Iñake Irastorza.

Bi edo hiru udatan guraso

erdaldunen umeak etxera eramane zituen Isabelek uda garai horretan ikasitako euskara ahaztu ez zezaten.

### Ataun

Ataunen 1966-67 ikasturtean hasi zen Begoña Munduate adin desberdineko 15 umekin. Guraso batzuen ekimeenez egin zen, Xabier Zubizarreta herriko apaiza ere burubelarri sartu zen egitasmoan. Ikastola oraingoz ere zutik dagoen oilategi ohi batean egin zen, San Martingo sarreran. Gurasoek egokitze lan handia egin zuten, aurrealdean umeek jolasteko parkea egin zuten beraiek kamioietan hondartzatik ekarritako hondarrarekin.

### Segura

Maixabel Telleriari 1966an gurasoek eskatu zioten umeen irakasle izan nahi al zuen. Pasaia joan zen Nekane Auzmendiarekin praktikak egitera. 1967ko martxo aldean hasi zen 15 umekin. Herriko lokal batean, Txanbolinen, Legorretako paperte-

gitik ekarritako manta edo matxoiak lurrean jarrita.

### Ordizia

Rosarito Lasa eta Mari Karmen Oiarbide hasi ziren 1967-68 ikasturtean, 50 haur bi taldetan banatuta. "Hasieran etxez etxe ibili ginen gurasoekin hitz egin eta ikastolarako haurrak bilatzen. Belurra zegoen, legalizatu gabe zegoela, gero kartila izango ote zuten...", diote. Motorrak egiten zituzten tailer batean hasi ziren.

### Legorreta

Legorretan ikastolari Arantxa Agirrek eman zion hasiera 1967an eta Mirari Arregi 1968an hasi zen lanean. Apaizetxean hasi ziren. Herriko bi apaizek Mikel Zuazabeitia eta Juan Peñagarikanok asko lagundu zuten. "Gero katakumeak bezala ibili ginen lokaletik lokalera, geroago zinean, orain udaletxea dagoen eraikuntzan..."

### Zaldibia

1968an Maria Rosario hasi zen, geroago Arantxa Etxeberria eta Nekane Arruabarrena iritsi ziren. Joxe Bernardo Garmendiaren lokal batean, ganbaran hasi ziren, bionbo batzuekin 3 gela eginda. "Gaintza eta Abaltzisketako umeak Zaldibiara ekartzen genituen eta guri tokatzen zitzaigun haien garraioa, baita eguerdian bazkaria ematea ere", diote.

### Itsasondo

1968an Iñaki Larrañaga apaiaren babesean Sakristi gaineko lokal batean hasi zen Maite Olazabal 16 ikaslerekin. "Herrian dinamika handia zegoen eta guraso eta guraso ez zirenek lan asko egin zuten. Legalizatzeko arazoak izan genituen baina gainontzean ez genuen arazo gehiegi izan", dio Maitek.



# Oianguren Institutua, Leonardo da Vinci programaren partaide Haur Hezkuntza zikloko 8 ikasle Ingalaterran

**O**rdiziako Oianguren Institutuan Goi mailako Haur Hezkuntzako zikloa egin duten 8 ikasle Ingalaterran izan ziren martxoan, praktikak egiten, Leonardo da Vinci proiektuaren barruan. Egonaldia motza izan bada ere, esperientzia oso aberasgarria izan da.

2.000 orduko zikloa da Haur Hezkuntza, bi ikasturtean banatuta. Bigarren mailan 540 orduko, lau hilabeteko praktikak egin behar izaten dituzte. Leonardo da Vinci proiektuaren barruan Europako beste herrialdeetara joateko bekak zeudela jakin zuten Ordiziako Oianguren Institutukoek. Proiektua aurkeztu eta praktikaldiaren zati bat atzerrian egitea onartu egin zuten Leonardo da Vincikoek.

Lehenengo urtea izan da honelako esperientzian parte hartu dutela eta hizkuntzagatik, Ingalaterra aukeratu zuten. Datozen urteetan, beste herrialderen batera joateko asmoa azaldu dute irakasleek, beti ere Europako beste herrialdeetako hezkuntza sistemak ezagutzeko. Bide batez, norberaren herriko ohiturak, hizkuntza, kultura... zabal-tzea ere bada Leonardo da Vinci proiektuaren helburua.



*Ingelesko ikastaro trinkoak egin dituzte Ingalaterrara joan aurretik.*

## 8 ikasle

8 ikasleri eman zioten aukera praktikaldia Ingalaterran egiteko: Oihana Villar, Agurne Salvador, Luke Aiastui, Alexia Kerejeta, Agurtzane Jimenez, Ainara Irastorza, Aitziber Etxeberria eta Amaia Blanco. Bertako familian egon dira.

Martxoan egin zuten praktikaldia, Ingalaterraren hego ekialdean dauden bi herritan. Gainerako hiru hilabeetako praktikak hemen ari dira egiten. Gaur bertan, ekainaren 6an, amaituko dituzte.

Ikastetxe ezberdinetan egon ziren: pribatuan, publikoan, erlijiosoan, haurtzaindegian... Ingelesa ikasi, beraien ikasitakoa praktikan jarri eta aldi berean beste herrialde bateko esperientziak jasotzeko aukera izan dute zortzi ikasleek.

## Esperientzia aberasgarria

Aukera ondo aprobetxatu dute eta esperientzia oso aberasgarria izan da guztientzat.

Hango eta hemengo hezkuntza sisteman ezberdintasun ugari aurkitu dituzte. Batzuk hobeak, eta besteak okerragoak. Hasteko hezitzaile eta laguntzaile kopuru handiagoa dago umeko. Haurtzaindegia batean esaterako, 7 haurreko hezitzaile bat zegoen. *"Hemen haur kopuru handiagoa izaten du hezitzaile batek. Ratioaren gaia oso kontrolatua dago. Hori errespetatzen ez badute, isunak jartzen dizkiete. Gurasoak ere laguntzera joaten ziren"*, adierazi digute. Hori bai, haurrekin ez omen dago hain harreman estua. *"Haurrekin ez da jolasten. Ez dago afektibitatek. Zorrotzegeiak dira"*.

Beste datu batekin ere harritu dira: *"haurrak oso babestuta daude. Adibidez, haurrei argazkiak ateratzeko baimena eskatu zien gurasoei"*.

Hemengo haur hezkuntzan aplikatu litekeen aurkitu dute. *"Material asko daukate ikasgeletan eta ekinga asko egiten dituzte. Musika, hondarra, lurra... daukate ikasgelan. Adibidez, urtebeteko haurrak akuarelekin margotzen ariren dira"*. Inprobisazioarako leku eta aukera gutxi izaten omen dute, asteak eta ikasturteak oso ondo programatuta izaten dituzte. Datu bat eman digute: 4 urterekin irakurtzen hasten dira Ingalaterrako haurrak.

Ikastetxeak solairu bakaurrekoak dira. Gela handiak txoko ezberdinetan antolatuta.

Ingalaterrara joan aurreko ingeles ikastaroan haur kantatuak eta jokoak eraman zituzten ikasita eta baliagarri izan zaizkie.

Azkenik, bukatzeko, harrituta utzi dituen kontu bat: *"oso edukatuak dira. Eskerririk asko eta mesedez, hitzetik hortzera erabiltzen dute"*.

## Lanaren zain

Gaur bertan, ekainaren 6an bukatuko ditu praktikak bigarren promozioako talde honek. Benetako praktikaldia, hemendik aurrera hasten zaie.



kutxa

gizarte ekintza



# Beasaingo jaien azken txanpa

## Ekainak 6, ostirala:

**19:00etan:** Erraldoi eta kili-kien irteera txistulariekin eta Musika Eskolako bandarekin.

**22:30etan:** Rock kontzertua txosnetan, txosnatan.

**23:00etan:** Saloiko dantzen, sevilla dantzen eta balet-dantzen erakustaldia, Loinazko San Martin plazan.

## Ekainak 7, larunbata:

**10:00etan:** Txistularien Ud-albandaren goiz eresia.

**10:00etan:** Elkarleen arteko sukaldaritza-lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

**11:00etan:** Erretiratuentzako toka eta igel txapelketak, Zaldizurreta kaleko terrazan.

**13:00etan:** Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketan pres-tatutako jakien aurkezpena, Loinazko San Martin plazan.

**16:00etan:** LIII. Loinatz txir-rindulari-proba amateurren-tzat.

**16:00etan:** Gazteen arteko xake txapelketa, Murumendi ikastetxean.

**17:30etan:** Umeentzako mo-zorro tailerra, Barrendain pla-zan.

**18:30etan:** Mozorrotuen bil-

kura eta ibilaldia 'Auskalo' taldeak eta 'Oria' txarangak alaituta, Barrendain plazan.

**19:00etan:** Umeentzako jaialdi girotua 'Auskalo' tal-dearen 'Kroketa-zopa' ikus-kizunarekin, Joan Iturralde plazan.

**19:00etan:** Oria txarangaren irteera.

**23:00etan:** Dantzaldia 'Los caporales' mariatxiarekin, Loinazko San Martin plazan.

## Ekainak 8, igandea:

**09:00etan:** Iturengo Aurtiz-ko zantzarren esna-deia.

**11:30etan:** Erretereriako Mu-sika-Kultura elkarteko musi-ka-bandaren kalejira.

**12:00etan:** Erakusleihen lehiaketako sari-banaketa, Bareak elkartearen.

**13:00etan:** Erretereriako Mu-sika-Kultura elkarteko Musi-ka-bandaren kontzertua, Loi-nazko San Martin plazan.

**17:30etan:** Dantzaoketa eta play-backa, Joan Iturralde plazan.

**19:00etan:** VII. Dantza Li-breko lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

**19:00etan:** Herri-kirolen jaialdia, Barrendain plazan.

## Herri kirol jaialdia, Gernika pasealekuan

Ohi bezala, Loinatz jaietako azke-neko igandean, arratsaldeko 7etan, Gernika pasealekuan, Arrano Bel-tza Herri Kirol tal-deak antolatutako herri kirol jaialdia izaten da. Harrija-sotzaileak eta aiz-kolariak izango dira.

Aurtengorako prestatu duten egi-taraua hau da:

## Goenatxo II. eta Izeta II.aren arteko desafioa

Harrija-sotzaileekin hasiko da jaialdia. Goenatxo II.ak eta Izeta II.ak desafioa jokatu dute, 152 kiloko harri kubiko-arekin. 5 minutuko txandan burutu beharko dute lana.

## Aizkoran bi saio

Aizkoran azkenik, bi saio izango dira. Batetik, zaharrak gaztearen aurka: Iñaki Azurmendi eta Floren Nazabal, An-gel Arrospide eta Donato Larretxearen aurka.

Bigarren saioan, Arria II.a Joxe Aierberen aurka lehiatu-ko da.



Angel Arrospide eta Joxe Mari Olasagasti.

**SILVIA MIRAS CASASAYAS**  
ODONTOLOGA

TEL./FAX: 943 88 92 87  
SAN INAZIO KALEA, 2  
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

**IRUDI - Foto, S.L.**  
Javier Fernández Sánchez

Erroilu bat **doan** negabibo errebelatu bakoitzarekin  
Argazki zaharren retoke digitala

San Inazio kalea, z/g BEASAIN  
Tel./Faxa: 943 888 100

**EGUZKI**  
INPRIMATEGIA

Nafarroa Etorbidea, 9  
943 88 94 82  
**BEASAIN**



**Xenkegi**  
DEKORAZIOA

Tel: 943 889 113 Faxa: 943 028 429  
xenkegi@euskalnet.net  
Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak  
Bainuak  
Ateak  
Zoruak  
Armairuak**

BEASAIN





## Patxi Plazaola alkate

Datorren lau urtean Patxi Plazaola izango da herriko alkate, maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan, EAJ-EA koalizioak gehiengo osoa lortu baitzuen. Plazaolarekin batera, beste hamar zinegotzi izango ditu EAJ-EA koalizioak: Peio Garaialde, Arantxa Aseginolaza, Imanol Aranburu, Juan M. Aldaregia, Jon Olano, J.A. Ibaibarriaga, Malu Valles, Aitor Aldasoro, Ana Asla eta Jon Kortaberria.

PSE-EEK, hiru zinegotzi izango ditu: Jose A. Sanchez, M. Pilar Vispo eta Alfonso Segade. PPK, 2: Julio Herberos eta Gonzalo Zaldo; eta IU-EBK, 1: Iñaki Saldaña.

Igartatik herri kandidatura legez kanpo utzi zuen auzitegi konstituzionalak. Dena den, 1.107 herritarren atxikimendua izan zuen Mikel Ola-



no buru zuen hautagai zerrendak.

### Udalbatzar berezia

Ekainaren 14an osatuko da udal berria. Azken 8 urtean alkate izan den Jon Jauregik lekukoa pasako dio Patxi Plazaolari.

*Nekane Altuna*

### Santiago Bidea bulegoa

Gipuzkoako Santiago Bidelagunen Elkartek urte batzuk darmatza dagoeneko ibilbide historiko hau zaintzen, bai seinalez-tapena argi eta txukun mantentzen eta bai bidera bera itxuratzen premia dagoenean. Esperientzia hori besteen zerbitzura jartzea dute helburuetako bat Elkarteko kideek. Elkartek honek bulego bat du Beasainen erroimes joan nahi dutenei argibideak eskaintzeko. Ostegunetan eskaintzen du zerbitzu hau 19:00etatik 20:30era Igartzako belen ermitan. Santiago Bidea egiteko informazioa emango da bertan eta gainera, gaiari buruzko hainbat argitalpen eskuratu ditzake bertaraten denak.

### 'Derrame Rock 8' ekitaldia

'Derrame Rock 8' izeneko ekitaldirako bidaia bat antolatu dute ekainaren 27 eta 28an Beasaindik. Honako talde hauek joko dute beste batzuen artean; Rosendo, Reincidentes, La Polla, Hamlet, Saratoga, Sober, Avalanc, MCD.

Interesa duzuenok harremanetan jarri telefono honetara deituaz: 658704786 edo idatzi helbide honetara: derramerock8@yahoo.es

## Udalaren diru-laguntzak

### UEUrako diru laguntzak

Beasaingo Udaleko Euskara-batzordeak, 2003ko XXXI. UEUren edizioan izango diren ikastaroetarako nahiz orokorki Unibertsitate-mailako euskarazko ikastaroetarako, diru-laguntzak eskaintzen ditu ikasle euskaldun beasaindarrentzat. Ikasleek ondorengo baldintzak bete behar dituzte: 1. Beasainen errolatuta egotea. 2. Batxilergoko 2. ikasturtea edo LH-2 eginda izatea edo Unibertsitateko Maila Ertain edo Goi-mailako ikastaroetara gai bereziak lantzerako joatea (ikasketak egiten ari direnek matrikularen kopia ekarri behar dute). 3. Eskaerak 2003ko uztailaren 11ra bitartean egin behar dira. 4. Irabazpideko diru-sarrerak dituztenek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

Eskaerak egitean, honako agiri hauek ekarri behar dira: 1. UEUko ikastarorako egindako matrikularen fotokopia. 2. NAREN fotokopia. 3. Diruetxeren bateko kontuaren zenbakia. 4. Udaletxean emango den eskaera-orria beteta. 5. Egiten ari den ikasketen matrikularen fotokopia. Baldintzak betez gero, laguntzak, kostuaren 2/3koak izango dira.

Eskaerak, Udaletxeko Harrera-bulegoan edota Euskarazerbitzuan entregatu behar dira. Informazio gehiago telefono honetan: 943 028063; posta elektronikoa: euskera@beasain.net

### Informatika arlorako laguntzak

Udaleko Euskara-batzordeak, 2000. urtean hasitako bidea jarraituz, informatika-arloan euskararen erabilera sustatzeko, ondorengo laguntzak eskaintzen ditu.

● **Informatikako euskarazko programa-erostunei:** 2003. urte honen barruan, informatikako euskarazko programak erosten dituztenei diru-laguntzak emango dizkie Beasaingo Udalak. Horretarako, pertsonak Beasainen errolatuta egon behar dute eta enpresa, denda, ikastetxe eta gisakoek Beasainen izan behar dute egoitza. Laguntza 60 Eurokoa izango da eta eroslekuan egindako deskontu moduan edota ondoren emandako laguntza moduan gauzatuko da. Beasainen hornikuntza hori euskaraz egiteko hitzarmena sinatutako saltzaileak, Goisystem, Chip's eta Montte dira.

● **Web orriak euskaraz:** Web-orriak diseinatzen, euskarazko bertsioak ere egiten dituzten Beasaingo enpresa, merkataria edo erakundeei, 60 Euroko laguntza emango zaie. Horretarako ezinbesteko baldintza izango da hizkuntza-arloan ongi idatzita egotea eta euskarazko bertsioak bere sarrera izatea. Hori lortzeko, Euskara-zerbitzuaren laguntza eskaintzen zaie diseinatzaileei. Diseinu-etxeen bidez deskontu moduan edota bestela emandako laguntza bidez gauzatuko da.

● **Kontabilitate eta gisako aplikazioak:** Kontabilitateko, gestioiko eta gisako euskarazko aplikazioak erosten dituzten Beasaingo enpresa, merkataria edo erakundeei, 60 Euroko laguntza emango zaie. Laguntza, erosten duten lekuan gauzatuko da deskontu moduan edota bestela ondoren egindako eskaera bidez.



# Antton Irizar alkate bosgarrenez

Maiatzaren 25eko Udal hauteskundeetan EA-EAJ koalizioak erabateko gehiengoa lortu zuen. Datu ofizialen arabera koalizioari dagozkio herriko 11 zinegotziak. Berme Batzordeak egindako kontaketa arabera EA-EAJk 9 zinegotzi lortu ditu eta Indarzabal Herri Bilgunea 2. Datuak beheko koadroan dituzue.

Alkatea EA-EAJ Koalizioko zerrenda burua, Antton Irizar izango da. Ikuskizun dago Indarzabalen botoei dagozkioen 2 zinegotziekin zer gertatuko den. Hauteskudeen aurretik EA-EAJk eta Indarzabalek bilera egin zuten. Herri bilguneak lortutako ordezkaritza errespetatzeko eskatu zuen. Erabakia (Kronika hau idazterakoan) hartu gabe dago. Udal berria ekainaren 14an eratuko da.

Batzar Nagusietarako bozketaren emaitzak oso antzekoak izan ziren, PNV-EAK



lortu zuen boto gehien (922) AuB izan da bigarren indarra (289), ondoren PP (57), atzetik PSE-EE (33), Aralar (30) eta azkenik Ezker Batua (21).

## Santi Agirre

1979 eta 1987 artean herriko alkate izandakoa, Santi Agirre, maiatzaren 27an hil zen. Herriko alkatea izateaz gain zinegotzi modura ere lan egin zuen Udaletxean. Herriar eta kanpotar asko bildu zen bere aldeko hileta elizkizunean.

|             | 2003            | 1999             |
|-------------|-----------------|------------------|
| EA-EAJ      | 984 (11*) (9**) | 944 (6 EA, 2PNV) |
| Indarzabal  | 316 (0*) (2**)  | 337 (3 Batasuna) |
| PP          | 37              | 40               |
| PSE         | 20              | 0                |
| Zuriak      | 29              | 19               |
| Baliogabeak | 7               |                  |

\* Zinegotziak datu ofizialen arabera.

\*\* Berme Batzordearen arabera.

## Artisau eguna

Igande honetan, ekainak 8, artisau eguna ospatuko da Idiazabalen. 19 artisauen lanak ikusi eta erosteko aukera egongo da. Artisauen postuak pilotalekuan egongo dira jarrita. Goizean 10,30etik 14:00etara eta arratsaldean 16.30etik 19.30era. Eskultura, saskigintza, damaskinatua, telarrak, margoak edota egur taila ikusi eta erosteko aukera egongo da.

## San Adrian

Ekainaren 15ean, igandea, ospatuko da San Adriango erromeria. Otzaurtera bitarteko bidea autobusean egin nahi dutenek Udaletxean eman behar dute izan ekainaren 9tik aurrera. Autobusak goizeko 7etan abiatuko dira Mujika paretik. Urteroko moduan baleak banatuko dira San Adriana joaten diren herritarren artean. Iluntzean ardoa banatuko da plazan eta bertan aforia egin nahi duenarentzat mahaia jarriko dituzte.

## Elkarte berria

Herrian soziedade berria dago maiatzaren 24az geroztik. Arretxe izena jarri diote eta 50 bazkide ditu. Elkartek aurrera begira hainbat ekimen antolatzeke asmoa du.

## Kirol Elkartea

Idiazabal Kirol Elkartek 25 urte beteko ditu aurren. Urtemuga hori ospatzeko hainbat ekitaldi egingo dituzte. Lehendabizikoa ekainaren 21ean. Egun horretan Kirol Elkartearekin hartu emana izan duten herritarrek eta kanpotarrek biltzeko bazkaria antolatu dute. Pilotalekuan izango da bazkari hori eta bertara joateko txartelak herriko tabernetan daude salgai.

## Egunkari berria

Euskarazko egunkari berriari laguntzeko akzioak salgai jarri ditu Egunkariaren aldeko herri batzordeak. 50 eta 300 euroko akzioak eskuratu daitezke. Banaka edo taldeka. Interesa duenak Udaletxean aurkituko ditu akzioak eskatzeko inprimakiak. Horiek bete eta berriro ere Udaletxera bueltatu behar dira.

## Eskolako festa

Ikasturtea bukatu aurretik, Herri Eskolako ikasle, guraso eta irakasleek jai eguna egingo dute ekainaren 14an, larunbata.

## Agenda

**Ekainak 6, ostirala:** Donato Goyeneche eta Edurne Iturbe, 'Trikitixa eta perkusioa'. 19:30ean Pilarreneako plazan.

**Ekainak 13, ostirala:** Idiazabalgo Musika Eskolako ikasle- en ikasturte bukaerako kontzertua. Pilarreneako ganbaran.

**LEIAR**  
KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:  
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:  
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70  
**BEASAIN**

Aholkularitza

**ASEPLAN**

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129

Oriamendi Kalea 15, behea **BEASAIN**

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabeekideen administrazio-lanak

e txekin

www.txekin.net



# Udalbatza berria osatu da

## Udal hauteskundeak

|              | 2003   |       |        | 1999   |     |        |
|--------------|--------|-------|--------|--------|-----|--------|
| Zerrendak    | Botoak | %     | Zineg. | Botoak | %   | Zineg. |
| Gabiria H.E. | 237    | 80,61 | 6      | 294    | 98  | 7      |
| Pagoeder     | 52     | 17,69 | 1      | ---    | --- | ---    |
| PP           | 2      | 0,68  | 0      | ---    | --- | ---    |
| Zurian       | 3      | 1,02  |        | 6      | 2   |        |
| Guztira      | 294    | 100   | 7      | 300    | 100 | 7      |

Errolda: 346

Hautesleak: 299

Baliogabeak: 5

Abstentzioa: % 13,58

## Batzar nagusiak

|           | 2003   |       | 1999   |       |
|-----------|--------|-------|--------|-------|
| Zerrendak | Botoak | %     | Botoak | %     |
| EAJ-EA    | 215    | 89,96 | 207    | 67,65 |
| Aralar    | 14     | 5,86  | ---    | ---   |
| PSE-EE    | 4      | 1,67  | 2      | 0,65  |
| PP        | 3      | 1,26  | 2      | 0,65  |
| EB-IU     | 2      | 0,84  | 0      | 0,00  |
| EH        | ---    | ---   | 94     | 30,72 |
| Zuriak    | 1      | 0,42  | 1      | 0,33  |
| Guztira   | 239    | 100   | 306    | 100   |

Errolda: 346

Hautesleak: 301

Baliogabeak: 62 (Botoen % 20,60)

Abstentzioa: % 13,00

Dagoeneko ezagutzen dira datozen lau urteetarako udal agintarien izenak. Maiatzaren 25eko hauteskundeetan herriak aukeratu zituen ordezkariak laster hasiko dira zereginak banatu eta legealdiari buru-belarri ekiten.

Igandeko jakinminik handiena udalaren osakera berria nola geratuko zen argitzea, hiru hautagai zerrendetatik nork zer lortuko zehaztea zen. Gabiria Hautesle Elkar-teak sei ordezkari erdietsi zi-

tuen udalbatzarako, Pagoeder plataformak, berriz, zazpigarrena, lehendabiziko hauteskundeak zituen honetan.

Xabier Muruak jarraituko du legealdi honetan ere udalaren arduradun nagusi izaten. Gainontzeko zinegotziak hauexek dira: Ainhua Aizpuru, Iñaki Etxezarreta, Iñigo Izagirre, Josune Agirre, Nikolas Igartzabal eta Txomin Bidegain. Hiru dira aurpegi berriak udaletxean, beraz.

## Labur-labur

● **Emakumeen bazkaria** datorren igande honetan izango da, ekainaren 8an, Ostatur. Aurretik hara deitu joateko asmoa duenak.

● **Berria Berri** euskarazko egunkariaren proiektuaren alde zenbait ekimen aurrera atera nahi dira herrian.



## Futboleak ederki

Beasaingo Loinazpe ikastetxeko taldean jokatzeko herriko bost mutikok urtebete honetan futboleak. Lehen denboraldia izateko bikain ibili dira gaztetxoek liga erregularrean, eta Gipuzkoako koparako sailkatu ziren. Lehengo maiatzaren 30ean Beasainen festa egin zuten klubeko guztiek, eta sariak ere jaso zituzten burututako eginahalarengatik.

## Eskola Txikien Eguna

Ikasturte amaieraren inguruan etortzen da herri txikietako ikastetxeek elkarrekin egiten duten festa. Asteasun antolatu dute aurtengoan, igande honetan, ekainaren 8an. Balentzategi herri eskolakoak ere partaide izango dira. Eguerdian 'Ilargiaren hasierre' ipuinaren antzezpena

egingo dute, eta arratsaldera arte segiko du egunpasak.

Ekainaren 20an amaituko dute 2002-03 ikasturtea eskolan. Aurretik ordea irteera batzuk egitekoak dira. Guraso elkarteak antolatuta ekainaren 15ean Urederra errekarren jaiolekua bisitatuko dute, ondoren Urbanen bazkaltzeko.

Aimar Maiz

## Ezkontzako 60. urteurrena

Aranburu baserriko Antonio Igartzabal eta Bixenta Alustizak ezkondu zirela 60 urte beteko dituzte aurten. Hain urteurren berezia ospatzeko tamaina berean igaroko dute eguna familiako guztiak ondoan dituztela. Beste urte askotarako!





# Herriaren eskertza

San Isidro eguna ospatzeko maiatzaren 16an egin zen herri afarian, hiru herritar omendu zituen herriak: Sokobioko Eugenio Matxain, Agerreko Pedro Zunzunegi eta Elormendiako Patxi Gorostizu. Lehenengo biak, herriko alkate izandakoak, 1962 eta 1989 bitartean; hirugarrena, 1978tik elizaren mantenimenduaz arduratzen dena. Hiruak ere gustura daude herriak egindako omenarekin.



## Eugenio Matxain

1962. urtetik 1976ra arte bitartean herriko alkate izan zen Sokobioko Eugenio. Aurretik ere zinegotzi egona zen. 82 ditu Eugeniok.

Dirurik ezak sortzen omen zituen arazorik handienetakoa. Herri aurre egiteko, auzolanean makina bat lan eginda-koak dira gaintzarrak, arrantxoaren truke. Bideak egiten eta konpontzen esaterako. "Eskonbroarekin bidea egiten hasi ginen. Lan handia zen. Artean makinarik ez zen eta eskuz ebaki behar zen bidea. Orain baino euri eta elur gehiago egiten zuen eta beti bideak gaizki egoten ziren", dio Eugeniok.

Urarekin ere arazoak izaten ziren Gaintzan. "13 ur kontsumitzaile zeuden eta

*Santu Guztien egunean litro bat ematen zuen herriko manantialak. Besteak 7 litro ematen zituen".* Diputazioa jo eta materialarentzako adina dirulaguntza eman zioten. Lana auzolanean egin behar izan zen orduan ere. Orduantxe utzi zuen Eugeniok alkateza.

Gobernadore Zibilarekin ere izan zuen saltsa bat baino gehiago. 1972ko maiatzan Lopategi eta Azpillaga bertsolarien jaialdia debekatu zuen Gobernadore Zibilak. Hark bidalitako eskutitza oraindik ere gordeta dauka. Herrietako jaietan Espainiako bandera jartzea behartuak egoten ziren. Urte batean, norbaitek bandera kendu eta Guardia Zibilarekin banderaren bila aritu behar izan zuen.

Disgustu galanta ere izan zuen Eugeniok, bera alkate zela: Fermin Sukia herritarra ijitoek hil zuten, 1964an.

Eugenioren esanetan, oso gogorra da alkate izatea. "Herri handi batean abokatuak-eta badaude, baina herri txikietan edozein foiloi dagoela, alkateari deitzen zaio".

Azkenik, nahi edo desio bat badu Eugeniok. "gerrak utzi eta elkarrizketaren bidez, arazoei irtenbidea bilatzea".

## Pedro Zunzunegi

Eugenioren lekukoa hartu zuen Agerreko Pedro Zunzunegik 1976an. Ordura arte zinegotzi izan zen. 1989an bukatu zuen legegintzaldia Pedrok. 70 urte ditu Pedrok.

Honek ere lan ugari egin behar izan zuen, gehienez, auzolanean oinarrituta. "Diputazioak dirulaguntza txikiak ematen zituen eta dena



*auzolanean egin behar izaten zen".*

Aurretik Eugeniok aipatu-tako uraren arazoari Pedrok eman zion irtenbidea. Ur depositua egin zuten. "Dena atxurrez egin zen, auzolanean. Beste biderik ez zegoen, dirurik ez zegoen eta. Gaur egun kontratista bati eman eta berak egiten ditu. Materiala ordaintzeko eman zigun Diputazioak. Herri guztitik 13 lagun hasi ginen. Ikusi zenean jende gehiagok sartu nahi zuen eta ordainduta sartu ziren", esan digu Pedrok.


Hilerriko nitxoak ere auzolanean egin zituzten. "Auzolanean egin behar eta gainera guk dirua jarri behar". 24 familik ordaindu zuten. 24na mila pezeta jarri ziren familiako".

Udaletxea, plaza, pilotalekua, elizako kanpandorrea, Larraizko bidea, telefono lineak, uso postuak, kultur etxea... egindakoak dira Pedro alkate zela.

Pedro alkate izan zen garaia kontuan hartuta, ikurri-narekin ere izan zuten gorabeherarik. "Ikurriña legeztatu aurreko garaian, herriko gazteek jarri egin behar zela eta baita jarri ere. Gero kontuak: udaletxeko banderari sua eman zioten baztar batean. Bietako jendea zegoen eta izugarrizko zalaparta sortu zen".

Pena bat badu Pedrok, Larraizko bidea irekitzerakoan

makina bat oztopo eta kome-ria pasatu ondoren ere. "Ninerone Alzaga eta Baliarrai-naino egitearen aldekoa nintzen. Baina Alzagan ez zuten nahi. Herri bidea zertxobait zabaltu besterik ez zen egin behar eta dirua ere bazegoen. Gaur egun bat baino gehiago damututa daude. Pena horixe daukat".



## Patxi Gorostizu

Elormendiko Patxiren lana da 1978tik elizaren mantenimendua. Teilatua dela, bergailua dela, edaria falta dela... beti izaten da zereginik. "Orain lan gutxiago izaten dut, teilatuan onduline jarrita dago eta", dio Patxik. Kanpandorreko eskilara karakola Patxiren bidez egindakoa da. Kanpaiari brontzezko min-gaina Lazkaon egin diote. Kanpandorre berrian gurutzea jartzen ere ibilitakoa da, Patxi, Pedro Zunzunegirekin batera. "Elkarlan estua izan da Udalarekin eta horrek asko errazten du". Aurretik, 12 urtean elizako diru kontuak eramane zituen.

Beste lan bat ere badu herri Patxi Gorostizuk. Izan ere, bake epaile ere bai baita, azken 14 urteotan. Paper mordo bat sinatu behar izan ditu Patxik. Gaur egun gutxiago. 62 urte ditu Patxik.



# Arantzazuko peregrinazioa

Ekainaren 8 eta 9an burutuko da aurtengo Arantzazuko Peregrinazioa. Aurtun igande goizean beste autobus bat gehiago izango da, beraz esan hiru irteera izango direla: goizeko 8etan, 9etan eta 10etan, Apeaderora igotzeko.

Bestalde, astelehen goizean, 10,30etako Meza Nagusia entzun ondoren, bertan bildutako herritarrok argazki bat ateratzeko asmoa dugu, Santutegiaren sarreran.

Gainerakoan ez da urteroko programatik aldaketarik aurrikusten.

## Ekainak 8, igandea:

**8:00etan:** Arantzazurako lehen irteera autobusez Apeaderoraino.

**9:00etan:** Arantzazurako 2. irteera autobusez Apeaderoraino.

**10:00etan:** Arantzazurako 3. Irteera autobusez Apeaderoraino.

**13:00-13:30ak** aldera bazkaria Udalak eskainita.

**17:00ak** aldera Peregrinoen azken txanpa Arantzazuraino.

**20:00etan** Errosarioa Santutegian.

**20:00etan,** Autobusa Zegamara.

**21:00etan:** Afaria.

**Oharra:** Elizako portikuan, ohiturari jarraituz, gastuei aurre egiteko herritarren laguntza jasotzen da, bai larunbateko meza aurretik eta ondoren, bai autobusen irteeretan eta baita igandeko meza aurretik eta ondorenean ere.

## Ekainak 9, astelehena:

**8:00etan:** Autobusa Zegamatik Arantzazura.

**10.15etan:** Goiko Bentan herritarrek elkartu eta Santutegiraino prozesioa herriko agintari eta txistulariekin.

**10:30etan:** Meza.

**Oharra:** Santutegi aurrean, bertaratutako zegamar guz-



Joxe Antonio Gorrotxategik utzitako argazkia.

tiok elkarrekin argazki bat aterako dugu, aurrekoen usadioa berreskuratzuz.

**13:30ean:** Bazkaria.

**15:00ak aldera:** Zegamara oinez datozenen irteera.

**16:30ean:** Zegamara autobusez itzuliko direnentzat irteera.

**18:00ak aldera:** Merienda Oazurtzen Udalak eskainita.

**19:00ak aldera:** Oinez datozenei ongi etorria San Bartolome Ermitaren ondoan, eta haurrentzat goxokiak.

**19:15ak aldera:** Ama Birjinaren ongi etorria Zupurrutin eta bere ondoren Prozesioa San Martin Parrokira sartuko da herriko txistularien laguntzarekin. San Martin parro-

kian Agurra (Salbea) bertaratuei.

**Ondoren,** Kasinoko XV. Ipuin Lehiaketaren sari banaketa plazan.

**19:30ean:** Otarateko eta ardo banaketa udal arkupeetan.

**21:00etatik aurrera** afaria Udaletxeko arkupeetan trikitilarekin.

## Elizkizun bereziak

**Ekainak 15, igandea:**

**11:00etan:** Santu Espiritun Meza Mikel Garziandiaren eskutik.

**12:00etan** Jaunartzeak San Martin Parrokian.

**12:00etan:** Idiazabalдарrei harrera Gurutze Santuko Ermitan.

*Eduarne Albizu*

## Hauteskundeen emaitzak

Maiatzaren 25ean burututako Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetan honako emaitza hauek eman ziren Zegaman.

Udaletxerako bozkan, EA-EAJ Koalizioaren hautagaiak, Juan Inazio Galdosek 661 boto lortu zituen, (1999an 528 botu); boto nuloak, "Aizkorri Plataformak" Angel Irigoras hautagaiarekin, 223 boto lortu zituen (1999an 367 boto), eta PPko hautagaiak, 14 boto lortu zituen. Aizkorri Plataformaren ilegalizazioa dela eta EA-EAJ Koalizioak izango ditu 9 zinegotziak Udaletxean; Esan, izandako boto nuloak (Aizkorri Plataformari emanak) kontuan hartuko balira, EA-EAJ koalizioak 7 zinegotzi izango zituzkeen eta Aizkorri Plataformak 2 zinegotzi. PPko hautagaiak ez du zinegotzirik lortu 14 botorekin.

Batzar Nagusietako emaitzak: EA-EAJ: 629 boto AuB (nuloak): 215 boto, PSOE: 4 PP: 16, IU-EB: 9 eta Aralar: 35.



## Olarango osasun zentro berria

Olarango Zentro balioanizta bukatua da dagoeneko eta poliki poliki bertan kokatuko diren zerbitzuak martxan jartzeko asmoa du Udalak. Lehenik irekiko den zerbitzua Osasun Zentrua izango da, ekainaren 23an. Esan, Zentro Balioanizta ikusgai izan zela, joan den ekainaren 1ean herritarrentzat eta ekainaren 6an, iluntzeko 7etan egingo dela inaugurazio ofiziala.

## Olaran auzoa eraberritzen

Bestalde, Olaran auzoko urbanizazioa ere oso zaharkituta zegoen eta Udalak berrurbanizazio lanak martxan jarri ditu. Auzo hau erabat itxuraldatuta geratuko da, dagoeneko egindako Babes Ofizialeko etxe berri eta orain hasitako urbanizazio berriarekin.

## Ekainak 14: txirrindu proba

Ekainaren 14an, Zegamako Elkartu nahi Txirrindu Elkartek antolatutako XIX. Elkartu Nahi Saria korrituko da. Lasterketaren irteera arratsaldeko 4etan izango da Zegamatik eta Otzaurten amaituko da.





## Hauteskunde emaitzak

Maiatzaren 25ean egin ziren hauteskundeetan Zerainen ondorengo emaitzak izan ziren: Udalera 214 hautesle-tatik 196k bozkatu zuten. Zurian 2, Baliogabeak 2, PP 0 eta Zerain Herri Kandidatura 192.

Batzar Nagusietako 214 hautesle-tatik 193k bozkatu zuten. Zurian 1, AUB 55, PP 0, PSOE 1, EAJ-PNV/EA 118, EKA 0, EB/IU 5 eta Aralar 13.

Udal hauteskundeetako historia pixka bat eginez, azkeneko 20 urtetan aurtengoan izan da bi zerrenda aurkeztu diren lehen aldia, alde bate-tik, beste hainbat herritan be-zala, PP jende arrotzez osatu-rikoa eta bestetik 1979. urtea ezkerro Zerainen aurkeztu den Zeraingo Herri Kandida-tura, ZHK.

Zerrenda hau, inolako ba-bes edo kutsu politikorik ga-be osatu ohi da, honetarako herri bilerak egiten dira, he-rriaren beharrak eta nahiak denon artean erabakitze eta

ondoren bozketa egiten da bi bueltatara, bozka gehien ate-ratzen dituzten zazpi pertso-nek osatzen dute hauteskun-deetara aurkeztuko den ze-rrenda eta ondorengo lau ur-tetan Udala osatuko duen tal-dea.

### Bola txapelketa

Ekainaren 15ean eta egun osoan zehar emakume, gazte eta beterranoen Gipuzkoako txapelketa izango da, Liztor-mendi bolalekuan.

Txapelketa hau urtero he-rri ezberdinean jokatzeko da, eta aurtengoan Zeraini egoki-tu zaio, bertan parte hartzeko izen ematea goizeko 10etatik 12etara eta arratsaldeko 4eta-tik 6tara izango da.

### Eskola txikia

Eskola txikiek, urtero egiten duen festa, aurtengoan, ekai-naren 8an Asteasun egingo da, Eskola txikiak bizirik He-rri txikiak bizirik lemarekin. Ekintza ezberdinak eta partai-detza zabalak betetzen du



## II. Zeraingo raid

Joan zen urtean egin zen lehen Raida eta esperientzia polita izan zenez aurten ere berriro egitea animatu dira antolatzaile-ak.

Ekainaren 15ean egingo den Raid honek 80km.ko ibilbi-dea izango du, goizeko 8,30etan albaitekoen kontrola pasa, eta 9,30etan herriko plazatik irtengo dira eta iluntza aldera bueltatuko dira bertara, egun gehiena Zeraingo eta Partzone-riko mendietan zehar ibili ondoren.

Proba honen irabazlea ez da izaten lehena iristen dena soi-lik baizik, eta denbora gutxienean baldintzarik onenean buka-tzen duen zaldia.

egun hau. Zeraingo eskolako haurrek ere, egun, horretan bertan parte hartuko dute, au-rrez prestatutako ekitaldi ba-tekin.

### Sendotza

Ekainaren 8an goizeko 11etan emango den mezan, Ion, Beñat, Nahikari eta Mai-tena gazteek, sendotzako sa-kramentua hartuko dute.

### Ion Muñoa Saritua

Ion Muñoa, zeraindar gazteak Urruzono saria irabazi du bi-garren aldiz, 'Geroaren hitza da oraina' lanarekin, 'A' mailan poesia sailean. Ha-mar eguneko bidaia Europan zehar eta diru saria da jaso duen saria. Zorionak Ion!

*Mari Flor Mendizabal*



## Udaleko osaketa berria

Maiatzaren 25ean udal be-riak osatzeko egin ziren hau-teskundeen ondoren, Mutilo-ko Herri kandidaturak esku-ratu zituen boto guztiak. Be-raz, ekainaren 14tik aurrera honako hauek izango dira udaletxea osatuko duten kide

berriak: Jon Zabalo, Anjel Mujika, Iñigo Apaolaza, Jua-nita Murgiondo eta Iñaki Ugalde.

### Lierniko ermitako lanak

Martxoaren erdialdean hasi ziren Lierniko ermitako erre-

taularen berreskuratze lanak eta dagoeneko nahiko aurre-ratuta daude. Ama Birjinaren irudia eta altareko lanak amaituta daude eta momentu honetan pulpitoan ari dira. Honek guztiak izugarritzko itxuratua eman dio, hain toki paregabean kokaturik dagoen ermitari. Guztiz amaituta daudenean merezi du inguru-ne bisitatuz, bertara ere sartu irtentxo bat egitea.


### San Pedroak gainean

Hilabete eskas falta da herri-ko festetarako. Dagoeneko prestakizunak aurreratuta daude, hala ere bezperako egunetan nahiz egun horietan parte hartu nahi dutenek, au-kera paregabea izango dute ekainaren 12an, arratsaldeko 7,30etan egingo den bilerara joanez, jai egun horietan par-te hartzeko. Bilera kultur etxean izango da.

*Iñaki Ugalde*



# Iñaki Maiora alkate OHTk gehiengo osoa lortu ondoren



Maiatzaren 25ean ospatu ziren udal hauteskundeetako emaitzak guztiz argi eta erabakiorrak izan dira gure herrirako. Guztira 845 herritarrek bozkatu zuten. Beraietatik Ormaiztegiko Herri Taldeak (OHT) gehiengo osoa

ematen dien 503 boto lortu zituen, zortzi zinegotzi ateraz; EAJ-EA izenean 124 boto lortu zituzten, zinegotzi bakarra lortuz. PSOE 7 boto, PP 9 botuo, baliogabeko botuak 192 eta zuriak 10 izan ziren.

Ormaiztegiko Herri Taldearen zerrendako buru azken legealdian alkatea izan dugun Iñaki Maiora denez, bera izango da aurrerantzean ere herriko alkate. Alkatearekin batera zerrenda osatzen duten gainontzeko zazpi kide izango dira zinegotzi izendatuak,

hain zuzen Xabin Ezkurdia, Gurutze Arrieta, Joxe Murua, Maria Martinez, Erkuden Murua, Rosa Sagarna eta Bernardo Osinalde. EAJ-EA koalizioak zinegotzi bat izango du: Jabier Muguruza.

*Aitziber Murua*



## 'Kutsidazu bidea Ixabel'

Egunkariaren alde, ekainaren 20an, Kutsidazu bidea Ixabel antzerki arrakastatsua ikusgai izango da gure herrian, gaueko 10,30etan, Zubipe kiroldegian. Sarreraren salneurria 10 euro dira, herrian tabernetan erosi ahal izango dira. Herri-kanpora, berriz, ondoren adierazten diren herrietako tabernetan: Liernin Mujika Jatetxean, Ezkio-Itsason bi ostatuetan, Gabirian ostatuan, Urretxun Lake-ten, Beasainen arrano eta Loinatzen, Legazpin Gurrutxaga eta Cariben, Ordizian Pottokan, Lazkaon Gerriko eta Albokan, Zaldibian Joxepanen, Ataunen Troskaeta eta Bittorren, Itsasondon Nautikon,

Legorretan Guadalupen, Zegaman Manolonen eta Idiazabalen Xaloan.

## Egunkaria asteburuko ekintzetan giro ona

Maiatzaren 17 eta 18an Egunkariaren alde ospatu ziren ekintzetan parte hartze handia eta giro ona azpimarratu behar dira. Larunbat goizez ospatu zen toka txapelketan Haritz Gisasola izan zen irabazlea, bigarren saria Pedro Hernandezek eskuratu zuen. Arratsaldean mus txapelketan irabazle geratu zen bikotea Joxe Mari Iurrita eta Zeles Simonek osatua izan zen. Jarraian triki poteoa eta bertso afaria izan ziren, azken honetan 200 lagun inguruk parte hartu zuten.

## Egunkaria batzordearen eskertza

Egunkariaren alde Herri Batzordea sortu zenetik era batera edo bestera (harpidetza, bono laguntza eta abar) lagundu duen norbanako, erakunde, enpresa, dendari, tabernari eta gainontzeko guztiei eskerrik beroena lutzatzen dizkizue-

te lerro hauetatik.

Aurreko lerroetan aipatuari jarraituz, egunkaria asteburuan laguntzaile izan zineten guztiek ere jaso ezazue eskerrik beroena. herriko

Deba eta Murua harategiei, Iñaki autoserbitzuari, Elozegi ardotegeari, Brigada Criminal eta Lidanne rock taldekideei, eskalada saioan laguntzaile izan zirenei, herriko tabernariei, bertso poteo eta bertso afarian aritu ziren bertsolariei, trikitilariei, Goruntz dantza taldekoei, herriko udalari, herri eskolari, afaria prestatzen eta banatzen aritu ziren guztiei eta inor ahaztu gabe era batera edo bestera Egunkaria asteburua aurrera ateratzen laguntza eskaini zenuten guztiei batzordearen izenean eskerrik beroena.

## Guraso elkartearen eskertza

Guraso Elkarteak, Irizar Koop. Entrepresari, biziki eskertu nahi dio euskararen erabilera suspertu eta bultzatzeko ekintzak garatzeko beraingandik jasotako dirulaguntza.



Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

© 943 88 77 26

ALTZAGA

## KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



# Alejandra Iturrioz beste lau urtez alkate

8 zinegotzi EAJ-EA koalizioak, 3 PSE-EE-k, 1 PP-k eta beste 1 EB-k. Hitz bitan esateko, EAJ-EAk gehiengoaz aginduko duela datozen lau urteotan udaletxeko erabakietan. Alejandra Iturrioz zereन्द्रaburu izanik, beste lau urtez, herriko ordezkari nagusia izaten jarraituko du.

Bozkei dagokionez esan EAJ-EAk 2.085 boto lortu zituela, PSE-EEk 908, PPk 503, EBk 376 eta 1.061 baliogabeak. Azken hauek 1.055 Ordiziarrek Gera plataforma ilegalizatuari emandakoak izan dira.

Honenbestez, beraz, hauek izango dira 2007 urtera arte herria ordezkatzeko duten zinegotziak. EAJ-EA koaliziotik: Alejandra Iturrioz, Joxe Arizmendi, Jose Miguel Santamaria, Jesus Mari Lariz, Jose Luis Ormazabal, Agur-



tzane Antoñana, Manuel Iturrioz eta Peio Otegi. PSE-EEtik: Iñaki Dubreuil, Monica Marañon eta Jose Javier Lopez. PPtik: Ricardo Carmelo Hueso. EBtik: Julian Carrasco. Azken legegintzaldian EAJ-EAk 5 zinegotzi zituen, 4 Sozialista Abertzaleak-ek, 2 PSE-EE-k, 1 PPk eta 1 EBk.

## Euskara ikastaroak

16 urtetik gorakoek ere izango dute ikastarorik egiteko aukera. Goiztiri AEK-koek behintzat uztaila eta irailean euskara ikasi nahi duenari ateak zabalduko dizkio. Matrikula egiteko garaia ekainaren 9tik 18ra bitartean izango da. Euskara ikasteaz gain EGA eta alfabetatze eskolak ere eskaini dituzte. Informazio gehiagorako deitu 943-889174 telefono zenbakira edota joan AEK-k Dorrea Etxean duen lokalera (Santa Maria kalea 4-2-ek.).

## Udalekuak

Udaleku irekietan lehen hezkuntzako haurrek Txirristi Mirristi izango dute aukeran ekainaren 30etik uztailaren 18ra. 2tik 5 urtera bitartekoek, aldiz, Plisti-Plasta ekainaren 23tik uztailaren 18ra. Biak ere goizetan egingo dira. Udaleku hauek eskolarik gabeko garai hauek bertako jardunekin jarraitu eta nolabait euskara tresna izanda ongi pasatzeko ekintza gisa antolatu ditu Txikitari aisi taldeak. Izena emateko epea ekainaren 2tik 13ra izango da, ikastetxeetan bertan edota Gazte Informazio Bulegoan.

## Futbol txapelketa

Lehen fasea amaituta bigarrenean ari dira XXIV. Lagunarteko Futbol Txapelketan jokoan dabilzan 10 taldeak. Hasierako neurketetako emaitzak kontuan hartuta Badago, Urbitarte Sagardotegia, Bustunmira, Harrike, Tximista Sagardotegia eta Ferrok osatzen dute orain "A" multzoa eta Vicuña Sport, Irin-tzi, Reggae Boys eta Altamira taldeek "B" multzoa. "A" multzoko 6 taldeak zuzenean final laurdenetarako sailkatuta daude (parekatzeak erabakitze postuak jokoan) eta "B" multzoko lehen biak izango dira aurrera egingo dutenak. Final laurdenak ekainaren 21 eta 22an jokatu dira, hurrengo asteburuan finalerdiak eta San Fermin bezperan finala. Aipatu bidean geratu dela E.R.Matxain Ileapaindegia taldea antolatzaileek hartutako erabaki baten ondorioz.

## Saskibalo txapelketa

Izena emateko epea irikita dago ekainaren 13a bitartean. Jokatzeko prest dauden taldeek eman dezatela izena Olano Tabernan edota Majori Kirldegiko tabernan. Izenematea doakoa da eta neurketak estaligabeko pilotalekuan jokatu dira.

## Udako kirol ekintzak

6 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek 'Uda 2003' programak eskaintzen dien kirol ekintzez gozatzeko aukera izango dute ekainaren 26tik uztailaren 23ra bitartean. Oraingoan ere dene-tik izango da, igerilekuan, itsasoan, mendian, kiroldegian, airean... Aurtengoan berrikuntza gisa esgrima eta gimnasia erritmikoa aipatu beharko dira. Izena emateko nahikoa da Majori Kiroldegira joatea edota eskolako kirol arduradunarekin hitz egitea.

Udaleku itxiak ere izango dira. 5 eta 6. mailakoak Lizarrara joango dira aurtien uztailaren 1etik 14ra. DBH 1 eta 2koak, ber-riz, uztailaren 14tik 27ra leku berera. DBH 3 eta 4koak ere uz-taileko bigarren hamabostaldian izango dute txanda Lizarra-Oronz-en.

## Filmak euskaraz

Ekaineko 4 ostegunetan euskarazko beste horrenbeste filma emango dituzte Herri Antzokian. Hurrenez hurren filmak: 5ean 'The pianist' eman zen, 12an 'Liam', 19an 'Bailame el agua' eta 26an 'Un mundo a su medida'. Guztiak ere iluntzeko 9,30etatik aurrera 3,50 euroren truke.

## San Joan sua

Ekainaren 23rako San Joan suaren inguruan dantzan egiteko entseguak hasiak dira. Parte hartu nahi izanez gero azaldu ekai-naren 9an arratsaldeko 8,30etan Santa Ana ikastetxean.

Aitor Calvillo



## Hauteskunde biharamuna

Udal hauteskundeetan Aralarren izenpean aurkeztu den talde independentea atera zen garaile 510 botorekin. Espainiako justiziak legez kanpo utzitako Herriari Leial plataformak, berriz, 434 boto lortu zituen. PP eta PSOE taldeek 26 eta 12 boto lortu zituzten hurrenez hurren, eta IU-EB-k ez zuen batere botorik lortu.

Baina, Batzar Nagusietako emaitzak desberdinak izan ziren. Udal hauteskundeetan Aralarrek beste inork baino boz gehiago jaso zituen arren, ez zen gauza bera gertatu foru hauteskundeetan: legez kanpo utzitako Herriari Leial plataformari emandako botoak izan ziren nagusi alde handiz (460), eta bigarren indarra, gainera, udal hauteskundeetara hautagairik aurkeztu ez zuen EAJ-EA koalizioa izan zen, alkatetza lortu duen zerrendaren gainetik. EAJ-EA koalizioak 269 boto eskuratu zituen bitartean, Arala-

rrek 169 lortu zituen. PPk, PSOEk eta EBk 36, 30 eta 19 boto lortu zituzten hurrenez hurren. Aralarren baitan eman den boto mugimenduak eta Herriari Leial plataformaren emaitzak nabarmendu dira Zaldibiako hauteskundeetan.

Hauek dira Zaldibian izan ziren emaitzak:

### Udala

|                |     |
|----------------|-----|
| Aralar         | 510 |
| Herriari leial | 434 |
| PP             | 26  |
| PSE-EE         | 12  |

### Batzar Nagusiak

|        |     |
|--------|-----|
| AUB    | 460 |
| EAJ-EA | 269 |
| Aralar | 169 |
| PP     | 36  |
| PSE-EE | 30  |
| IU-EB  | 19  |

Emaitza horiei erreparatuta, Aralar udal taldeak alkate-tza lortuko luke (alkatea gehi-lau zinegotzi) eta Herriari Leial plataformak lau zinego-

### Udako Kanpainarako begirale deialdia

Urtero bezala, aurtengoan Zaldibiako Udalak hainbat jarduera antolatu ditu uda garairako eta bertan lan egiteko begiraleak behar dira. Haurren eta gaztetxoek jardueretarako begiraleak behar dira, baita tenis ikastarorako monitoreak ere. Haurren jarduerak uztailearen 1etik 24ra arte izango dira; gaztetxoek jardueretarako datak finkatu gabe daude, baina asmoa 12 urtetik 15 urte bitarteko gaztetxoekin irteera bat egitea da.

Jarduera hauetako batean begirale izan nahi baduzu ondorengo baldintza hauek hartuko dira kontuan: Zaldibian erroldatua egotea, 18 urte beteak izatea edo aurreko betetzea eta euskara ondo menderatzea. Interesatuak Kultur Etxean eman behar duzue izena ekainaren 10a baino lehen.

Haurren eta gaztetxoek jardueraz eta tenis ikastaroaz gain, Zaldibiako Udalak piraguismoa, hipika eta aerobika egiteko aukera ere eskaintzen du. Kasu honetan ere, izena eman nahi baduzue joan Kultur Etxera ekainaren 10a baino lehen.

### Kurtso amaierako ekintzak

Ikasturte hau ere amaitzera doa eta, urtero bezala, urteari bukaera emateko hainbat ekintza antolatu dira.

Ekainaren 21ean, larunbata, gurasoak seme-alaben aurka arituko dira. Ikasturteari amaiera emateko gurasoak futbole-an, pilotan, saskibaloian... arituko dira beraien seme-alaben aurka.

Lardizabal Herri Eskolak eta Musika Eskolak ere, urtero bezala, kurtso amaierako festa egingo dute ekainaren 20ean.

tzi eskuratuko lituzke. Espainiako legediak, ordea, Herriari Leial legez kanpo utzi zuen, eta legedi horren arabera Aralarri 9 zinegotzi egokitu-tuko zaizkio. Hala ere, Aralarren izenpean aurkeztu den

taldeak behin eta berriz azpimarratu du hauteskundeetako emaitzak errespetatuko dituela. Ekainaren 14an hartuko dituzte karguak zinegotzi berriek.

*Edurne Soraluze*

## Udaleku irekiak

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloko haurrekin hiru astetako udaleku irekia antolatuko da ekainaren 23tik uztailearen 11ra,

biak barne.

Esperientzi honekin ikasturtearen jarraipena egin nahi da, bai euskararen erabilera

bultzatzeko nola ikasleen arteko harreman pertsonalen arloa lantzeko.

Lan hau astelehenetik ostiralera egingo dugu goizeko 10etatik 1era, jokoak, antzerkia, irteerak eta abar burutuko direlarik.

**Haurren izen ematea**  
Udaletxean, ekainaren 18rarte izango da.

**Begiraleen izen ematea:**  
Udaletxean, ekainaren 13rarte. Baldintzak: Gutxienez 18 urte beteak izan, Legorretan erroldatua egon, euskaraz ezin hobe mintzatu eta ikasketak hauetako batean gutxienez 3 urte ikasiak izan: Magisteritza, Pedagogia, Psikologia, SHEE (Soin Hezkuntzarako Euskal Erakundea) edo Begirale Titulua.



# Otso festa 2003

Ekainarekin batean hemen da, beste behin ere, ikasturte amaierako Kultur eta Kirol festa, Otso Festa '03. Aurten goan ere egitarau bete-betea aurkeztu berri dute Ataungo Udalak eta Ataungo Kirol Elkartek datozen asteotarako. Hona hemen aukerak:

## Ekainak 6 ostirala

Gaueko 10etan, bideo emaldia. Emalea: Joxe Ramon Agirre 'Marron', 'Hegan O-8000' bere azken muntaia aurkeztuko du.



## Ekainak 7 larunbata

Gaueko 10etan, antzerkia herri antzokian 'Kutsidazu bi-dea, Ixabel' antzezlan arra-

kastatsua. Sarrerak aurrez salgai Troskaetan, Urbietan, Bitorrenen eta Atsedan-Tokin.

## Ekainak 12, osteguna

Iluntzeko 8etan, Ataun aztergai beka, udaletxean. Beka honi esker egin diren bi libururen aurkezpena egingo da. Hala nola: 'Ataungo kanta zaharrak', Maximo Aierbe eta 'Ataungo ogibide historiakoak', Pello Joxe Aranburu.

## Ekainak 13 ostirala

Iluntzeko 7etan, jaialdia herri antzokian. Herriko musika eskolako ikasleak eta Otsoa dantza taldearen eskutik: Trikitilariak, Piano joleak, Gitarra joleak, Abeslariak, Dantzariak...

## Ekainak 21 larunbata

15:00etan: Pala txapelketako finala.

16:00etan: Frontenis txapel-

## Hautzaindegia 2003-04 ikasturterako

Ataun izango da Hezkuntza sailaren 0-3 urteko haur eskolen planaren barne sartuko den herrietako bat datorren ikasturtean, herrian arlo honetan gero eta nabarmenagoa zen gabeziari erantzunez. Hezkuntza Sailak 2002ko urte bukaeran 0-3 urteko haur eskolak dekretua publiko egin zuen eta aipatu gabezia horien jakitun, Ataungo Udala Hezkuntza sailarekin harremanetan jarri zen, zerbitzu horren beharrean zeuden herritarrei erantzun bat eman eta haurrak herriko haurtzaindegian uzteko aukera izan zezaten, orain artean bezala kanpora eraman ordez. Hutsune hori betetze aldera dator Udalaren ekimen hau. Izan ere, Joxemiel Barandiaran ikastetxean 2 urteko gela badago baina goiz eta arratsaldeko zerbitzua emateko baino ez dago prestatuta, adin horretako haurrak guraso edo aitona-amonek etxera eraman behar dituztelarik bazkaltzera. Esan bezala, baiezko erantzuna eman zaio Udalaren eskaerari Hezkuntza Sailatik eta datorren kurtsoan ireki ahal izango da Joxemiel Barandiaran ikastetxean kokatuko den haurtzaindegia. Bertan izan zen Ramon Martinez de Murgia, Gipuzkoako Hezkuntza Delegatua, joan den maiatzaren 29an eta kokapen egoki eta atsegina iruditu zitzaion. Hala ere, eskolan zenbait berrikuntza eta egokitzapen egin beharko dira. Horretarako, obrak uztailen hasi eta abuztuaren erdialderako amaituta izango dira, ikasturte berriaren hasierarako dena prest egon dadin.

ketako finala (gizonezkoak).

17:00etan: Esku Pelota txapelketako finala.

18:etan: X. Ataungo Aretoko futboleko txapelketako finala.

19:00etan: Otso festa '03 aforia Bitor jatetxean. Ikasturteari amaiera emateko sari banaketa barne

*Agurtzane Bikuña*

## 'Berria berri' kanpaina abian

Aurreko zenbakietan azaltzen genizuenek, ekainaren erdialdean kaleratzekoa den euskarazko egunkari berria argitaratu ahal izateko beharrezko diren 5.000.000 euroak biltzeko kanpaina abian da dagoeneko gure herrian ere. Kanpaina honek, aipatu dugun eran, euskarazko egunkari berria abian jartzeko beharrezko den diru kopuru hori biltzea du helburu. Horretarako 300 euro eta 50 euroko akzioak jarri dira salgai, herrian Egunkariaren Aldeko Batzordea egiten ari den kanpainen bidez jakitun izango zaren eran. Norbaitek agian, diru gehiegixko eritziko die diru kopuru horiei, baina Batzordeak jakinarazi digunez taldeka, familia, koadrilaka edota elkarteak erosteko aukera ere irekita dago. Salmenta puntuak honakoak izango dira herrian zehar: **San Martinen:** astearte eta ostegunetan, zinema ondoko aretoan, iluntzeko 8etatik 9etara. **San Gregorion:** asteazken eta ostiraletan, Elkargunean, iluntzeko 8etatik 9etara. **Aian:** ostiraletan, elkarteetan, arratsaldeko 6etatik iluntzeko 8etara. Puntuotan emango zaizue informazio eta xehetasun gehiagoren berri akzioen inguruan.

Bestalde eta, kanpaina girotzeko asmoz, ekitaldi desberdinak antolatutako Batzordekoek ekainerako, hala nola: **Ekainak 6, ostirala:** iluntzeko 9etan Mus txapelketa Oargin. **Ekai-**

**nak, 14 larunbata:** Egunkari berriaren aurkezpena Donostiako belodromoan. **Ekainak 17, astearte:** Iluntzeko 8etan Txema Auzmendi espetxeratua izan zen Herri Irratiko lankidearen hitzaldia San Gregorioko Elkargunean.

## Caja Rural garaila 3. urtez jarraian

Joan den igandean ospatu zen XXXIX. Ataun San Martin Txirrindulari proban Eugenio Pineda, Caja Ruraleko txirrindularia izan zen garaile. Azken 3 urteotan talde honek eraman du lehen saria, joan den urtean herritar batek, Dioni Galparsorok irabazi zuen eta aurreragokoan, talde bereko Aitor Perezek. Pinedarentzat izan zen baita ere Mendiko saria. Bigarren saria finlandiar batentzat izan zen, Alfus taldeko Set Collinsentzat, hain zuzen ere. Bera izan zen Tarteko Helmugetako sariaren irabazle ere. 3. postuan Aitor Galdos helmugaratu zen. Labarca 2-Baque taldeko txirrindularia aurreko egunean Laudioko proba irabazita etorri zen gurera. Azkenik, taldekako saria Caja Ruralentzat izan zela esan behar da.

## Heriotza

Joan den astean zendu zen Tellazpiko Pilar Baztarrika Munduate. Doluminak sendiari.



**Antzerki emanaldia, gaur**  
Marina Paglialunga irakasle-arekin ikasturtean zehar euskara ikastaroan aritu diren ikasleak eta zenbait herritarrek antzerki emanaldia eskainiko dute kurtso amaierako ekitaldi modura. Arratsaldeko 7etan, Txanbolinpe aurrean, 'Iruiz printzesa' antzezlan ordu erdi inguruko iraupena du. Hamar pertsonaia parte hartuko dute.

### EA-EAJ koalizioa bozkatuena

Egoera anormalean burututako maiatzaren 25eko hauteskundeetan, udal ordezkariak dagokionez, koalizioaren zerrenda izan zen bozkatuena (487 bozka), ondoren Harresi herri plataforma (331 bozka) eta azkenik PPrena (17 bozka). Emaita hauen arabera, koalizioak 5 hautetsi eta plataformak 4 izango lituzke. 'Legalitatea' aplikatzen bada, EA-EAJ geratuko litzateke 9 zinegotzirekin. Kargu hartzeko bilkura ekainaren 14rako dago iragarria. Emaita guztiak 4. orrialdean.

### Festa aurrerapenak

- **Sega kanporaketa.** Informazioa 3. orrialdean.
- **XXVII. Euskadiko dantza txapelketa.** Izena emateko epea ekainaren 13, 14:00ak arte, Eusko Dantzarien Biltzarrean.
- **Txirrindulari probak.** Ekainaren 21ean, elite eta 23 urtez azpikoen Euskadiko Txapelketa. 23an, jubenil mailako Gipuzkoako Itzuliren 3. etapa amaiera.
- **Pelota.** San Joan eguneko partidu estelarra: Capellan eta Imaz, Xala eta Lopez de Eularen aurka.
- **Umeen eguna.** Umeen herri bazkaria. Arratsaldean Ta-kolo, Pirritx eta Porrotx.

## Egunkari berriaren aldeko diru bilketa

### Akzioak koadrilaka, familiako, bakarka... eros daitezke

Zerotik hasiko den egunkari berriaren proiektuak 5.000.000 euroko dirutza behar du. Herritar eta euskaldun kopuruaren arabera Segurari 4.850 euro egokitu zaio. Herriko Egunkariaren aldeko batzordea, besteak beste, lan horretan dabil. Tabernari, dendari, elkarte, talde eta banaka-koak ari dira dagoeneko akzioak erosten, 2000 euro in-

guru lortu direlarik. Horren guztiaren jarraipena egiteko termometro erraldoi bat jarri da Txanbolinpeko balkoian, non, lortzen ari den diruaren arabera 'merkurioak' gora egiten duen.

Herriko batzordea ekainaren 11n, 19:00etan da elkartzekoa eta besteak beste, akzio nominatiboen banaketa egingo da.

Batzordeak, herritar guztiak gonbidatu nahi ditu, familiako, koadrilaka, bakarka... akzioen erosketan parte har dezaten. Horretarako udaletxera jo besterik ez dago.

Ekainaren 14an, Donostia-ko belodromoan egingo den 0 alearen aurkezpenerako sarre-rak (5 euro) ere salgai daude herriko denda eta taberna ezberdinetan.

### Futbito txapelketa

Koadrilen arteko III. txapelketan 8 taldek eman zuten izena. Ekainaren 8an, 12:00etan hasita final aurrekoak jokatu dira: Lanbatero 2 - Ostegunear loto eta Robin Zurrut - Guk asteazkenean. 3. eta 4. postuak 15ean jokatu dira eta finala 21ean.

### Alustizak pelota utzi

Maiatzaren 24an jokatu zuen Martin Alustizak bere azken partidua profesional modura. 1980ko uztailaren 19an debutatuta 23 urtez aritu da pelotaren goreneko mailan.

### Bost herri artekoa

Pelota bultzatu asmoz, Segura Kirol elkarteko pelota taldeak antolatu eta 5 udalen babesarekin, Mutiloa, Zerain,

Idiazabal, Zegama eta Segurako 9-15 urte bitarteko 30 bikote ari dira eskualdeko txapelketan. Maiatzean hasita, zapatu goizetan jokatzeko dituzte partidua. Finalak ekainaren 15ean izango dira, 17:30ean, Seguran.

### Labur-labur

- **Oxiña igerilekua.** San Joan ondoan irekiko dute. Uda partean bertan lan egiteko, orain bi urteko arrabiola-tarrak izango dira.
- **Igeriketa ikastaroa.** Uztailaren 7tik 24ra, 12:00etatik 13:00etara, 5 urtetik gorako-entzat. Irakaslea: Jokin Elko-ro. Izen ematea, ekainaren 13 arte, udaletxean.
- **Udako aisialdia.** Ekainaren 30etik uztailaren 18ra, 10:00etatik 13:00etara, 2tik 12 urte bitartek haurrekin ari-

tzeko begiraleak behar dira. Izen ematea, ekainaren 9 arte. Haurrak izena emateko: ekainaren 13a arte. Informazio gehiago udaletxean.

● **Trinitate kofradia.** Ekainaren 15eko mezen aurretik eta ondoren egingo da urtero-ko kobraketa.

● **Idiazabalдарrei harrera.** Ekainaren 15ean San Adrian-dik erromesaldian datozenei, Malkorre parean harrera egin eta hamaiketako eskainiko die udalak.

● **Eskolarteko txapeldunak.** Udaberriko txapelketan altuera jauzian urrezko domina lortu du Nagore Ormazabalak eta brontzezkoa Lander Ugaldek. 150 metrotan brontzezko domina Ainitze Imazek eta Lander Ugaldek. 60 metrotan brontzezko domina Mikel Imazek.

● **Xabier Imazek** ez zuen izan mailari eusterik, Berra-ondoren kontra 22 eta 12 galdu ondoren ekainaren 2an Tolosan.

● **Urrustiñene eta inguru-nea** botata, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen hasi arte, aparkaleku zerbitzurako erabiliko da gune hori.

● **Eliza diru eske.** Bobeda eta teilatuko konponketei aurre egiteko, herritar guztiei egin zaie dirulaguntza eskaria.

### Denboraldi amaiera

Denboraldiko emaitzarik aipagarriena jubenil taldea 2. mailatik Igora igotzearena izan da. Errejonialak datorren denboraldia ere maila berean jokatu du, 5. geratu ondoren. Jubenilek zein errejonialek abuztuan hasiko dute aurrendenboraldia. Kadeteak eta infantilak ere kategoria berean arituko dira.

### Kadete eta infantiletan jokatzeke deia

Zuzendaritzak, 2003-04 denboraldian Aizkorri futbol taldean jokatzeke infantilei (1990 eta 1991 jaioetakoak) eta kadetei (1988 eta 1989an jaioetakoak) dei egiten die, ekainean zehar, ostegunetan, 18:30ean, Alustiza futbol zelaira ager daitezen kirol jantziekin. Infantilen taldea, ohorezko mailako Goierriko bakarra da.





## Elgoibarko Institutua

San Roke, 1 Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net



ELGOIBARKO  
INSTITUTUA  
2003-2004  
ikasturtea

### LANBIDE HEZIKETAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK AUTOMOZIOA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK: TEKNIKARIA

· Elektromekanika (Automozioa, 2.000 ordu)

· Karrozeria (Automozioa, 2.000 ordu)

GOI MAILAKO ZIKLOAK: GOI TEKNIKARIA

· Automozioa

zatoz  
elgoibarko  
institutura

### HEZKUNTZA ZIKLOETARAKO AURREMATRIKULA: ekainaren 2tik 10era

**Azpiegitura teknologiko aurreratuena**, 80 ikasgairen eskaintza, **lan praktikak European**, Irakasle lizentziatu, ingeniari edo diplomatuak, ISO 9002 kalitate ziurtagiria, prozedura garden eta kontrolatuak, lan munduan sartzeko emaitza ezin hobeak

#### ANTOLATZAILE



SEGVEX VDALA



#### LAGUNTZAILE



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Nekazaritza eta Ingurumen Departamentua



Eurofan 4x4



www.eurofan4x4.com

Tel.: 943 33 10 06 - HERRIAN



NAZIOARTEKO  
**SEGA TXAPELKETA**  
Euskal Herriko Segalarien arteko  
Kanporaketa

**SEGURA**  
2003ko ekainaren 15a  
goizeko 11etan

"HASI, BELAR, MOTZ"





# San Benitoko ikasleak lehia bizian

Zoriondu beharrean gaude gaztetxo hauek atletismoan lortu dituzten markak ikusi ostean. Infantil mutilen mailan Gipuzkoako txapelkun izan dira. Honen emaitzari esker Euskadiko txapelketan parte hartzeko aukera izan zuten. Hau martxoaren 24an izan zen Eibarko Unbe instalaziotan. Euskadi mailan ere emaitza oso onak lortu zituzten eta bi gazte hauek, Jon Garmendia eta Jon Andoni Irastorza Euskal Selektzioara deituak izan ziren. Banaka txapelkun geratu ziren bakoitza bere modalitatean. Lehen 80 metroan eta bestea berriz altueran, Gipuzkoa mailan pisu jaurtiketan ere aritu arren. Orain Espainia mailan korritzeko aukera izango dute.

Oier Lunak 2. postua eskuratu zuen pisu jaurtiketan.

Alebin mailari dagokionez Gipuzkoa mailan irabazle izan ziren 2000 metroko lasterketan. Krosean, berriz, 3. postua eskuratu zuten. Alebin neskak berriz taldeka bigarren postua lortu zuten Irungo lurraldeetan.

Bukatzeo, Eider Algaba Gipuzkoako selektzioarekin aritu zen 3000 metroko lasterketan. Krosean ere aritzen da eta aurrekoan 2. postua lortu zuen. Euskadiko selektziotik ere deitua izan da eta pasa zen astean Tarragonan izan zen. Hemen laugarren geratu zen.

Beraz parte hartu duten guztiei eta irabazleei zorionik beroena.

## Erregionalak amaitu dute denboraldia

Aurreko larunbatean jokatu zuten kopako finalerdia Berio futbol-zelaian. Azken emaitza 2. izan zenez eliminaturik geratu ziren eta era berean ligari amaiera eman zioten. Partidua nola joan zen ikusita, pena handiarekin geratu ziren eta oso haserreturik egin zien lapurretarekin baina jokoa besterik ez denez ahazteko asmoarekin eta hurrengo denboraldirako errehabilitatzen saiatuko dira. Hauek ere merezi dute beraien oporrak.

## Picos de Europa txangoa

Ez da lehen aldia Domarda elkartek mendi irteera bikainak antolatzen dituela. Oraingo honetan berriz ere ibilaldi polit bat



## Udako kirol kanpaina

Ekainaren 23 hasi eta uztailaren 18an bukatuko da Uda kanpaina. Ikastaro gehienak 20 egunetakoak izango dira baina badaude motzagoak ere, piraguismoa eta eskalada esateko. Kanpaina hau eskolaume nahiz helduentzako zuzenduriko ikastaroez osatzen da. Kirol eskaintza adinen arabera egingo da honela geratuko delarik.

**0-3 urte:** haurtxoen igeriketa. **3-6 urte:** igeriketa ikastaroa eta kirol anitzeko jarduerak. **6-12 urte:** igeriketa, tenisa, pilota, irristaketa, saskibaloia, aerobik txiki, piraguismoa, eskalada mendiko bizikleta eta arku tiroa. **12-16 urte:** jarduerak anitzak edo irteerak, piraguismoa, aerobik, irristaketa, eskalada, mendiko bizikleta eta tenisa. **16tik gorakoak:** igeriketa, tenis, irristaketa, aerobik eta piraguismoa.

Kanpainako izen ematea Joxemiel Barandiaran kiroldegian egin beharko da ekainaren 18 arte. Argibideren bat behar baduzue bertara joan edo 943160934 telefono zenbakian jasò liteke.

izango da. Naranjo Bulnes ingurua ezagutzeko aukera, larunbatean. Gaua Sotres herrian pasa eta Tresviso herrixkatik Urdonera jaitsiera igandean. Egun honetako bazkaria San Vicente de la Barqueran egingo da.

Irteera, ekainak 13, gaueko 12tan plazatik izango da eta itzulera, ekainak 15, gaueko 8-9ak inguruan. Prezioa 55 euro izango da pertsonako. Bertan, bidaia, larunbateko afaria eta loa, igandeko gosari eta bazkaria sartzen da.

Nahiz eta bidai honetarako izen emateko epea itxia egon, jakin, beste baterako; ikastolan (Ttanton) eta Domardan (Solis) direla arduradunak.

Aitor Tello



**RENAULT**  
**AGENTZIA**

**LAZKAO**  
**GARAJEA**

Senpere Industrialdea  
943 882442 - 943 888901  
Faxa: 943 888901  
LAZKAO



**Abokatuak**  
**Enpresen**  
**asesoria eta**  
**gestioa**

**AHOLKULARITZA**

**txekin**

www.txekin.net

**Legorreta**  
**Beasain**  
**Orendain**

**Etxebizitzaren salmenta:**

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net

**Elosgi, 16 LAZKAO**






# Koldo eta Arantxa trikitilariak eta aspaldiko partez Josu eta Jokin Kontzertu mundiala

Zain izan gara denbora luze-an, baina hemen ditugu. Koldo eta Arantxa Iparragirre, eta Josu eta Jokin. Ekainaren 14an izango ditugu gurekin, Lazkaoko Joxemiel Barandiaran kiroldegian gaueko 10etan hasita. Lehenengo Koldo eta Arantxa arituko dira, atera berria duten diskoa aurkeztuko digutelarik. Hilaren lein Beasainen jo zuten eta bertan izan ginenok gus-tura entzun genuen Arantxa-ren ahots gozoa eta Koldoren behatz arinen soinua.

Ondoren Josu eta Jokin, ez zineten bada hauekin ahaztu-ta egongo? Josu Irastorza Olaberrikoa eta Jokin Lasa lazkaotarra. Urte batzuk badi-ra biak elkarrekin oholtzan ikusten ez ditugula, baina hi-laren 14an Lazkaon elkartuko dira Kilometroak 03 dela eta, gurekin direla adierazteko. Garai bateko kantuak etorriko zaizkigu burura, 'Ez dut gal-



du esperantza', ez horixe, ez-ta geuk ere. Ea bada, behar bezalako harrera egiten die-gun abeslari hauei eta hilaren 14an kiroldegia bete-bete eginda ikusten dugun.

## Sarrerak salgai

Sarrerak aurretik erosiz gero 5 euro eta egunean bertan 6 euro. Lazkaon Gerriko taber-nan, Beasainen Loinaz taber-nan, Ordizian Pottoka taber-nan eta Ataunen Urbietan.

## Mus Moskorak berezia Kilometroak 03-ren alde

Urtero abendu erdialdera Moskorak lagun-taldeak antolatzen duen mus txapelketak edizio berezia izango du aurten Kilome-troka 03ren alde. Ekaina-ren 14an arratsaldeko 4,30etan izango da. Izen ematea Gerriko tabernan hiru eta erdiak aldera, 20 euro kostako da bikoteko. Jokoa 8 erregetara eta 3 usteletara izango da.

Sariak izugarriak izan-go dira eta lehenengo hi-rurak behintzat aipatuko ditugu, nahiz eta lehenen-go zortzientzat izan. 1. saria: 800 euro eta txape-la, 2. saria: 400 euro eta 3. saria: 200 euro.

## San Benito ikastolaren 40. urtemugako ospakizunak

Gure zaharrek esaten dute denbora airean pasatzen dela eta arrazoirik ez zaie falta. Aurtengoan Lazkaoko San Benito ikas-tola sortu zela 40 urte izango baitira. Egun handi hau ospatze-ko zer edo zer egin beharra zegoen derrigorrean eta halaxe ber-tako ikasle, irakasle, juntakide, laguntzaile eta beste hainbat la-gun elkartu gara eta ekainaren 15erako bazkaria antolatu dugu. Gure asmoa ikastolaren urteurrena ospatzea eta aspaldiko la-gunekin hitz-aspertu bat edo beste egitea da, beraz animatzen bazara ondoko hau izango da egitaraua:

12:00etan: herriko plazan elkartu.

13:30ean: aipamen ekitaldia.

14:30ean: zikiro jana.

Bazkalostean: kantu eta dantza saioa, Lazkaoko eta Urruñako txarangekin.

Bazkaria 10 euro 14 urtetik beherakoentzat eta 15 euro gai-nerakoentzat. Ordainketa Kutxako 2101 0381 06 0011005253 kontuan egin beharko da. Ordainketa egiten duzuenean jarri ar-gi eta garbi izen-abizenak. Egunean bertan ere izango da txar-telak eskuratzea, eguerdian herriko plazan izango den mahai-txoan. Informazio gehiago: 943-880800.

o s k a r b i  
o i n e t a k o a k

Tel. 943 88 41 04

Tel. 943 88 19 44

kale Nagusia 34 BEASAIN kale Nagusia 25 ORDIZIA



LOINATZ

Taberna  
Jatetxea

Bazkari, afari,  
ogitarteko, pintxoak



943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



## ZINEA

### ITSASONDO:

**Ekainak 6:** 'Los niños del Brasil', 22:00etan, Ertoetxen.

### ORDIZIA:

**Ekainak 12:** Euskarazko filma: 'Liam', 21:30ean, Herri Antzokian.

**Ekainak 19:** Euskarazko filma: 'Bailame el agua', 21:30ean, Herri Antzokian.

**'Mi vida sin mi'.**

Ekainak 6: 22:15.

Ekainak 7: 22:15.

Ekainak 8: 19:30-22:15.

Ekainak 9: 19:30.

**'El libro de la selva 2'.**

Ekainak 8: 16:45.

## bertsoak

### LAZKAO:

**Ekainak 6,** Gipuzkoako Eskolarteko bertsolari txapelketa, Joxemiel Barandiaran kiroldegian, 16:00etan.

## musika

### BEASAIN:

**Ekainak 6,** Gipuzkoa plazan, 23:00etan, rock kontzertua: 'R (Andoian) eta Heotrip (Bartzelona).

**Ekainak 7,** Umeentzako dantzaldi girotua Auskalo taldearen 'Kroketa zopa' ikuskizunarekin, 19:00etan, Joan Iturralde plazan.

**Ekainak 7,** Gipuzkoa plazan, 24:00etan, DJ Aritz Sound System.

**Ekainak 7,** 'Los caporales' mariatxiak, Loinazko San Martin plazan, 23:00etan.

**Ekainak 8,** Errenteriako Musika Kultura elkarteko musika bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan, 13:00etan.

### LEGORRETA:

**Ekainak 6,** Ordiziako Musika Eskolako kantu ikasleen kontzertua, Salbador Deunaren parrokiari, 20:00etan.

### IDIAZABAL:

**Ekainak 6,** Donato Goyeneche eta Eburne Iturbe, 'Trikitixa eta perkusioa'. 19:30ean Pilarreneako plazan.

**Ekainak 13,** Idiazabalgo Musika Eskolako ikasleen ikasturte bukaerako kontzertua. Pilarreneako ganbaran, 19:30ean.

### LAZKAO:

**Ekainak 14,** Koldo eta Arantxa trikitilariak eta Josu eta Jokin, Joxemiel Barandiaran kiroldegian, 22:00etan.

### ORDIZIA:

**Ekainak 6,** Kimetz Literatur lehiaketaren sari banaketa eta testu irabazleen irakurketarekin batera, 'Unhe' boskotearen 'Mugak zabalduz' folk-jazz kontzertu fusioa, 22:30ean, Barrenan.

### SEGURA:

**Ekainak 13,** Gaubela taldearekin dantzaldia, taberna-riek eta txoznak antolatuta.

**Ekainak 14,** Gaubela taldearekin dantzaldia, taberna-riek eta txoznak antolatuta.

## antzerkia

### ATAUN:

**Ekainak 7,** 'Kutsidazu bi-dea, Ixabel', 22:00etan, Herri Antzokian.

## ikusentzunekoa

### ATAUN:

**Ekainak 6,** J.R. Agirre 'Marron'-en 'Hegan 0-8000', 22:00etan, Herri Antzokian.

## erakusketak

### ORDIZIA:

**Ekainaren 13ra arte,** Gipuzkoa Akwarelista Elkartearen erakusketa, Barrenan.

**Ekainaren 9tik 27ra arte,** Jose Luis Estevezen argazki erakusketa, Barrenan.

## mendi irteerak

### ORDIZIA:

**Ekainak 8,** Arraras-Basakabi, Ordiziako Mendizale taldeak antolatuta.

**Ekainak 15,** Ordizia-San Migel, Ordiziako Mendizale taldeak antolatuta.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

**Astegunetan:** Jauregi

(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

**Ekainak 7-8:** Atorrasagasti.

(Bustuntza auzoa - Ordizia). 943 882934.

**Ekainak 14-15:** Cuesta.

(Nafarroa Etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.



## JAUREGI

**TOLDOAK s/l**

**Tfnoak.: 943 88 02 43**

**943 88 01 33**

**BEASAIN**

## IKASTEK AKADEMIA

[www.ikastek.net](http://www.ikastek.net)  
[ikastek@ikastek.net](mailto:ikastek@ikastek.net)

Joan Iturralde, 5

BEASAIN

☎ 943 160 120

### KURTSOA GAINDITZEKO GARAIA!

Etorri Ikastek akademiara!

Lehen Hezkuntza, DBH, Modulua,  
Batxilergoa, Unibertsitatea

### UDA IKASTAROAK

Eman izena orain!

- ✱ Tailerrak, irakurmena, idazmena, matematika
- ✱ Eskolako lanak

Informa zaitez!



## Gipuzkoako Eskolarteko bertsolari txapelketako finala Lazkaon

Joxemiel Barandiaran Kiroldegian jokatu da, gaur, ekainak 6, Gipuzkoako Eskolarteko 23. bertsolari txapelketa. Arratsaldeko 4etan hasiko da saioa. Txikietan, herrika lehiatuko dira, Añorga, Hernani, Zarautz eta Zumai. Handietan, banaka ari-tuko dira Oier Aizpurua, Naiara Arreseigor, Alaia Martin, Aitzol Munduate, Arkaitz Oiartzabal, Agian Rezola eta Aitor Urbiet. Gai jartzailea eta aurkezlea Andoni Egaña izango da.



Aitzol Munduate ataundarra handietan lehiatuko da.

## Euskarazko lau filma Ordizian

Ekaineko lau ostegunetan, euskarazko beste horrenbeste filma emango dituzte Ordiziako Herri Antzokian, gaueko 9,30etan, 3,50 euroren truke. Ordiziako Euskararen Aholku Batzordea da euskarazko zine saio hauen eragilea. Atzo, Roman Polanskiren 'The Pianist' eskaini zuten eta datozen hiru ostegunetako egitaraua hauxe duzue:

**Ekainak 12:** Stephen Frearsen 'Liam'.

**Ekainak 19:** Josetxo San Mateoren 'Bailame el agua'.

**Ekainak 26:** Peter Chelsomen 'Un mundo a su medida'

## 'Kutsidazu bidea Ixabel', Ormaiztegin

Ekainaren 20an, Ormaiztegin izango da 'Kutsidazu bidea Ixabel' antzezlan. Sarrerak salgai daude dagoeneko, 10 eurotan. Informazio gehiago, Ormaiztegi kronikan.

## 27. Euskal Herriko dantza txapelketa Seguran

San Joan jaietan, ekainaren 21ean eta 22an, 27. Euskal Herriko dantza txapelketa jokatu da. Bertan parte hartu nahi duten dantzariak ekainaren 13ra bitartean dute izena emateko epea 943289848 telefonon, 943 277232 fax zenbakian edo gedb@euskalnet.net posta elektronikoan.

15 urtetik gorako bikoteentzako lehiaketa izaten da Segurakoa. Fandangoa txistuz eta ariñ-ariña trikitiaz dantzatu behar du bikote bakoitzak. 12 bikote baino gehiagok izena eman gero, ekainaren 21ean, arratsaldeko 6etan, kanporaketa jokatu da. Finala, ekainaren 22an jokatu da, ordu berean. Bikoteen parte hartze ordena larunbateko kanporaketaren ondoren erabakiko da.

Kanporaketan nahiz finalean, Euskal Herriko dantza jantzi tradizionalak eramatea derrigorrezkoa izango da. Jantzien ikusgarritasuna eta dotorezia areagotzeko helburuarekin bikoterik onenarentzat 200 euroko sari berezia emango du EITBk eta 120 euro bigarren sari bat emango da.

Epaimahaia bost dantza adituk osatuko dute. Sariak hauek izango dira:

**Lehenengoa, Segurako Udalaren sari nagusia:** Nestor Basterretxearen eskultura, plaka, txapela, lepokoa, euskal makila bana eta Eroski Bidaiek-ek emandako 4 bidaia.

**2. saria:** 500 euro eta oroigarria.

**3. saria:** 400 euro eta oroigarria.

**Laugarren sailkatutik hamabigarrenera:** 200 euro bikote bakoitzari. Txapelketan parte hartu duten gainontzeko bikote guztiei 100 euro.

**Herriko bikoteentzat sari berezia.**

Txapelketako **bikoterik gazteenarentzat sari berezia.**

**Gillermo Areizaga sari berezia:** Txapelketara lehenbiziko aldiz aukezten diren bikoteen artean ongien sailkatzen denari.

**PSIKOLOGI KLINIKOA**

**AGI**

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto  
Psikologian lizentziatua  
Elkargokide zenbakia: E-2644  
RPS: 42095

**AURRE ZITA**  
☎ 943 887 221  
☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**ZALBIDE**  
TOLARE SAGARDOTEGIA

- ✕ Sagardoa txiritik irailaren bukaera arte
- ✕ Asteburuetan eguerdi eta iluntzetan
- ✕ Arraieran berezitasuna

☎ 943 65 21 76 ABALTZISKETA

**iBAi ONDO**

**AROTEGIA**

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan  
Mota guztietako arotzegi lanak  
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47  
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640  
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

**Autowag, s.a.**



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

**BEASAIN**



## Etxebizitzak

### salgai

➔ Zegamako erdigunean 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Oso eguzkitsua. 699846417.

➔ Zaldibian pisua salgai. 100 m<sup>2</sup>. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Garajearekin. 943889258. (20:00etatik aurrera).

➔ Itsasondan etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela beheko suarekin, 3 logela, 2 bainugela, ganbara eta garaje itxia. 676047880.

➔ Zegaman etxebizitza salgai. Herri erdi-erdian. Egoera onean. 943801141.

➔ Itsasondan etxebizitza salgai, garajearekin. 943886909.

### errentan hartu

➔ Etxe bat errentan hartuko nuke Seguran, Idiazabal en edo inguruan. 690281452.

➔ Lazkaon edo inguruan, etxe hutsa alokatuko nuke. 943430550.

➔ Etxea alokatu nahi da Lazkaon edo inguruan. 676049931.

➔ Etxea edo apartamentua alokatuko luke bikote batek Goierrialdean. 617394357.

## errentan hartu-konpartitu

➔ Madril en ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914595390.

➔ Azpeitian, alokatutako etxe batean, logela bat libre dago. 690066304.

### errentan eman

➔ Jakan apartamendua alokatzen da udako, igerilekuarekin. 943216684.

➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretarako. 9434533981.

## Garajeak lokalak

### errentan eman

➔ Idiazabal en, Kale Nagusian, garaje-plaza alokatzen da. 655703101.

### saldu

➔ La Riojako Villamediana herrian 60 m<sup>2</sup>ko etxazpia salgai: sukaldea, bainu osoa, tximinia frantsesa eta hiriagas dun berogailua. Lorategi eta igeritokira sarrera. 627600477 - 941203400.

## konpartitu

➔ Lokal bat konpartituko nuke alokairuan. Aukera ona. 943884108.

## Lursaila

### errentan hartu

➔ 3000 metro karratu edo gehiagoko zelaia alokatuko nuke Goierri en. Urtean 100.000 pezeta. 943886610.

## Negozioa

### errentan eman

➔ Taberna alokatzen da Idiazabal en. 943187081.

➔ Olaberriko Etxezuri sagardotegia alokairuan eskaintzen da, jubilaziotatik. 943882049.

## Bestelakoak

### erosi

➔ Artoa txikitzeo makina erosiko nuke, eskuzkoa edo elektrikoa. 943181023.

## salgai

➔ Umeentzako kotxesila berria salgai. Osa-garri guztiak. 150 euro. 659511578. Miren.

➔ Land Rover luzearen parrila salgai. 150 euro. 943885831.

➔ Zanussi arko kon-geladorea salgai. Txikia eta erabili gabea. Merkea. 943889384 - 629977649.

➔ Haur batentzako silla salgai, Bebe Confort etxekoa. Oso egoera onean. 670422051.

➔ Egongelako altzariak salgai: armairua, mahai txikia, 3 plazako sofa bat eta plaza baka-rreko bi sofa. Prezio ne-goziagarria. 943085147. 22:30etik aurrera deitu.

➔ Egurrezko ate onak, 7, salgai, prezio onean. 943-889435.

➔ Tabernako basoak garbitzeo aparatua eta frijitzaille industrial salgai. Berriak daude. Prezio ona. 659291596. Intza.

### errentan hartu

➔ Autokarabana bat alokatu nahi da abuztuan, 15-20 egunerako. 652760675.

## Ibilgailuak

### salgai

➔ Kawasaki Ninja ZX6 motorra salgai. 1998koa. 650191474.

➔ Citroen C15 diesela salgai. SS-Am. 607301243.

➔ Renault 15, diesela, salgai. 5 ate. SS-AM-Garajea n gordetakoa. 650679119.

➔ Volkswagen Passat GL salgai. SS-AK. Egoera onean. 627080413. Jabi.

➔ Kawasaki KLE 500eko, traileko motorra salgai. Oso egoera onean. 22.000 km. 2.400 euro. 943766401 - 605712473.

➔ Opel Ascona 21.OI GT salgai. 5 atekoa. Ondo zaindua. 679861448. Jon.

➔ Piaggio NRG Extreme motorra salgai. 652748319. Gauetan deitu.

➔ Ford Escort 1.6. G.T salgai. SS-AF. Prezio onean. 650132272.

➔ Opel Ascona 21.OI GT salgai. 5 atekoa. Ondo zaindua. 679861448. Jon.

# ZEINU HIZKUNTZA

## Antolatzailea: Zeinu Eskola

IKASTARO TRINKOA  
EKAINAK 16 - UZTAILAK 30

IKASTAROA 2003-2004  
URRIA - MAIATZA

Informazio gehiago: INMACULADA IKASTETXEA  
Kondeko Aldapa kalea, 5 B TOLOSA Tel.: 943 67 36 29

INMACULADA  
IKASTETXEA



Goi Mailako Gizarte Integrazioak  
Zeinu Hizkuntza irakasgaia  
barne du



## Laskorain, 8 - behea

**Hautzaindegi eta zentro publikoek** hautzaindegietarako langilegoa behar du. Eskakizuna: Hautzaindegi FB II. Informazioa dohan. Presta zaitez. Adozek informatzen du. 943444509.

**Harreragileak**, gidariak, lorezainak, atezainak, zaindariak, telefonistak, mantanimendua, zerbitzu anitzak... Udaletxe eta Foru Aldundietan lan egiteko. Informa zaitez. 943444509.

**Aire kontrolatzaileak**. Aireportuan. AENak konbokatutako 250 plaza. Baldintzak: Erdi-mailako ingelesa eta Diplomatura edo Lizenziatura. Adozek informatzen du: 943444509.

**Gidariak** behar dira Udaletxe eta Foru Aldundietan lan egiteko. Eskola graduatua. Presta zaitez. 943444509.

**Tolosa**, Hondarribia, Lasarte eta Hernaniko udalteeetan 18 udaltzain behar dituzte. Eskola Graduata. Informazioa dohan. 943444509.

**Suhiltzaile Parkeak**. Donostia, Eibar, Hernani, Tolosa eta Zarautzen deialdiak laster. Batzbesteko diru-sarrerak: 1.800 euro. Presta zaitez. 943444509.

**Gida-eskola irakasleak**. eta garraiolariak. Profesional bihurtzeko. Langaberiak gabeko lanbideak. 1800 euro g.g.b. Informa zaitez. 943444509.

## Tolosa

**Liburutegi-laguntzaileak**. Lan egin ezazu, Udaletxeak, artxiboak eta Unibertsitateak. Berehala altxatzeko. Informazioa dohan. 943444509.

**Baso-pertsonala**. Parke eta Natura Erreserbatan agente, zaindari zein peoi bezala lan egiteko. Lanera altxatzeak laster. Lan-baldintza, ezinhobeak. 943444509.

**Administrariak**, laguntzaile eta teknikariak. Soldata finkoa: 1000 euro g.g.b. Donostia, Irun, Eibar, Elgoibar, Bergara, Arrasate eta Hernanin lanpostuak. Presta zaitez. 943444509.

➔ Tabernan, sukaldean lan egiteko jendea behar da Ordizian. Datuak bidali Ordiziako 134 posta-kutxara.

➔ Neska edo emakume euskalduna behar da Beasainen etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. 943085602 - 656777471.

## eskaintzak

➔ Klinikak laguntzaile esperientziziduna eskaintzen da arratsalde zaharrak zaintzeko 943884343 - 605761630 (Raquel).

➔ Lazkaoko emakume bat edozein lanetarako eskaintzen da. 943880672.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da maiatzetik aurrera, umeak zaindu edo dendan lan egiteko. 943084046.

➔ Neska euskalduna prest dago maiatzetik aurrera, umeak zaindu, dendan lan egin edo tabernan lan egiteko. 943886263.

➔ Goizetan ileapaindegia batean lan egingo nuke, Goierri inguruan. Josune. 650040753.

➔ Goizetan 4-5 ordu lan egiteko emakume euskalduna eskaintzen da, etxeko lanak egin, haurrak zaindu edo adineko jendea zaintzeko. 660759207.

➔ Emakume bat eskaintzen da orduka lan egiteko. 943180426.

## Langai

Euskal Lan Zerbitzua  
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza  
943 884 401

## 2 SOLDATZAILE

Beasainen. Erref. 102991/2

## SOLDATZAILE 1

Goierri. Erref. 102799/4

## MAKINEN MUNTAIARAKO ELEKTRIZISTA

Goierri. Erref. 102654/3

## EROSKETA INGENIARIA

Goierri. Erref. 102244/3

## BANATZAILEA

Goierri. Erref. 102051/2

## CARREFOUR SUSTATZAILEA

Goierri. Erref. 101521/3

## TORNURAKO LANGILEA

Goierri. Erref. 101140/4

## ENPLEGU ZENTRORAKO PERTSONA

Tolosaldean. Erref. 101918/3

## CNC FRESATZAILEA

Tolosan. Erref. 102000/1

## HORTZ HIGIENISTA

Tolosaldean. Erref. 102042/4

## TORRE GARABI LANGILEA

Olaberri. Erref. 102556/3

## ERAIKUNTZAKO PEOIA

Olaberri. Erref. 102559/3

## GALDARAGILEA

Tolosan. Erref. 103205/2

## JOSTUNA

Tolosaldean. Erref. 102384/1

## Animaliak

### salgai

➔ 8 ardi eta ahari bat salgai. Gazteak eta onak. 943180388. Gauetan deitu.

➔ 2 setter salgai. Bat 5 urtekoa eta bestea 4koa. 943160015.

➔ 4 artzain txakurkume salgai. Merke. 943885831.

➔ Ehizerako hezi dai-tekeen txakurkumea salgai. Arra. 4 hilabete, Cocker Spaniel. 170 euro. 658747901.

➔ Bordes Collie arrazako txakurkume arra salgai. 679861448. Jon.

## Lana

### eskaerak

➔ Goierriko taberna batean lan egiteko neska euskalduna behar da. 649052806.

➔ Pertsona bat behar da sagardotegian lan egiteko. 676049931.

➔ Neska edo emakume euskalduna behar da Beasainen, arratsaldetan umeekin laguntzeko, 4etatik 7etara. 615795480.

➔ Goierriko euskarazko komunikabide berri batek kazetariak eta teknikariak behar ditu. Curriculumak bidaltzeko: Goieki, Mallutz, 29 - Ordizia. Goibista@mix-mail.com.

➔ Beasainen emakumea behar da umeak zaintzeko. Arratsaldetan, 3etatik 4etara. 676642501.





## 1973an Segurarrak herriarteko txapelkun

Hernaniri irabazi zioten segurarrak Tolosan, pilotako herriarteko bigarren txapelketa lortuz. Infantiletan Esteban Oiarbidek eta Ramon Huertak jokatu zuten, jubeniletan Ramon M<sup>a</sup> Oiarbidek eta Iñaki Aranburuk eta afizionatuetan Iñaxito Etcheberriak eta Luli Telleriak.

**Zutik, ezkerretik eskuinera:** Patxi Imaz, Iñaki Imaz, Ramon Mendizabal, Pello Telleria, Ramon Telleria, Luli Arrieta, Joan M<sup>a</sup> Gereñu, Ramon Ormazabal, Patxi Rekondo, Daniel Ariztimuño, Txetxu Etcheberria, Pello Aizpeolea, Pablo Luzuriaga, Joanito Oiarbide eta Joxe Mari Luzuriaga.

**Pikotxean:** Joan M<sup>a</sup> Imaz, Benito Gerriko, Iñaki Aranburu, Jexux Gereñu, Ramon M<sup>a</sup> Oiarbide, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Ramon Arrue eta Iñaxio Agirre.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.

**VOLVO**



**ANZIZAR, S.A.**

**Autoen salmenta  
Mekanika eta  
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a  
☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48 11  
www.anzizar.com  
**BEASAIN**



**GEURIA**  
ALUMINIO AROZTEGIA

Zubi termiko hausturak  
leihoak  
Bulego eta bainuetako  
manparak  
Ateak, erakusleihoak eta  
balkoiak

943 880 162  
Iñauti Ind. 14  
**OLABERRIA**



**KAMIXETA ESTANPAZIOA  
FOTOKOPIAK KOLORETAN**

☎ 943 02 73 53 Faxe.: 943 02 79 39  
San Inazio, 5 **BEASAIN**



Zure seme-alabak...  
Nahi duena esateko zailtasuna agertzen badu  
edo ez bazaio ulertzen; soinuak ez baditu egoki  
ahozkatzen edo totelka egiten badu...

Mintzaera, berba eta ahotsaren gorabeheren  
tratamendua, diagnostikoa eta prebentzioa

**afots** Logopedia

Nagusia 2 1<sup>o</sup> Esk. 20200 Beasain Tfnoa 605 71 69 15 - 655 73 67 35





Altamira Auzoa z/g  
Tfnoa.: 9438 880 862  
Faxa: 943 164 121  
012282@hezkuntza.net

## OIANGUREN BHI ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOA

### HAUR HEZKUNTZA (GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA)

Iraupena 2000 ordu (2 ikasturte)

- Haurren mundura gerturatzen.
- Jolasen bidez ikasten.
- Etorkizunerako prestakuntza ezin hobea jasotzen:
  - > Lan mundua: Irakaskuntza, Haurtzaindegia, Ludoteka...
  - > Unibertsitatea: Hainbat lizentziatura eta diplomaturako sarbide zuzena.



AURREMATRIKULA EPEA: Ekainaren 2tik 11ra



## Lan bertikalak S.L.

**Kanaloiak**  
**Bajanteak**  
**Fatxadak**  
**Pintura**  
**Teilatuak**  
**Tximiniak**

...

Tfnoa.: 605 712 018  
Ezkurdiategi Etxea      ATAUN





**ANTZIZAR**

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA

## UDA AZKAR IGAROTZEN DA

Aprobetxatu ezazu... Berak eskainitako aukera

guztiak osotasunean goza ditzazun, Antzizar-

ek bere zerbitzuak zure esku jartzen ditu

urte osoan zehar, unea iritsitakoan

zu gozatzeaz bakarrik ardura

zaitezen. Nahi duzun moduan.

KIROLA EGITEN ARI DIRA >>>>

**[www.antzizar.net](http://www.antzizar.net)**

tel. 943 887900



BEASAINGO UDALA